

1. GAIA: SARRERA

Ekonomia gizarte-zientzia bat da gizartea aztertzen duelako, gizabanakoak eta haien arteko erlazioak aztertzen dituelako.

Hainbat zientziarekin erlazionatzen da: Matematika, zuzenbidea, psikologia, antrologia, historia, politika, etika, soziologia...

Ekonomiaren arazoa baliabideak mugatuak direla da gure nahiak edo beharrak mugagabeak izan harren. Gatazka horri eskasia deritzo eta eskasia horrek aukeratu beharra dakar. Aukera kostua uko egiten diogunari deritzo.

- **Ekonomia:** Ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, banaketa eta kontsumoa aztertzen dituen gizarte zientzia da, jakintza-alor anitzeko zientzia.
- **Eraginkortasuna:** Zarrastakeriarik ez, baliabideak ahalik eta modurik eraginkorrean erabiltzea, gizabanakoen beharrak eta nahiak asetzeko.
- **Ekitatea:** Banaketa berdina.

- EKONOMIA MOTAK

- **Ekonomia positiboa:** Ekonomiak nola funtzionatzen duen azaltzen du. Ekonomia positiboak sistema ekonomikoa deskribatzen du, modelizatzen du (matematika eta estatistika erabiliz esaterako) azalpen objektiboak emanez.
- **Ekonomia normatiboa:** Nola funtzionatu beharko lukeen azaltzen du. Ekonomia normatiboak sistema ekonomikoak planteatzen dituen arazoan aurrean, hartu beharreko erabakiak nolakoak izan beharko liritekeen aztertzen du, irizpide etiko, politiko edo ideologikoetan oinarrituz.

- EKONOMIAREN ADARRAK

- **Mikroekonomia:** Eragile ekonomikoak bakarka aztertzen ditu eta euren arteko erlazioak merkatuan (merkatuak islatzen du ondasun baten prezio maila bakoitzeko kontsumitzaileek zer ondasun kantitate eskatzen duten eta enpresek zer ondasun kantitate eskaini).

*Ekonomia eragileak:

- Kontsumitzaileak
- Ekoizleak
- Estatua

- **Makroekonomia:** Ekonomiaren funtzionamendu orokorra aztertzen du (aldagaiak:inflazioa, barne-produktu gordina...)


- **Jarduera ekonomikoa:** Gizabanakoen beharrianak asetzeko-ondasunak edo zerbitzuak ekoiztea, banatzea eta kontsumitzea.
- **Ekoizpen-faktoreak:** Beste ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko eta banatzeko erabiltzen diren oinarrizko ondasunak edo zerbitzuak dira:
 - *Natur baliabideak* → Naturan dute jatorria.

- *Kapitala* → Beste ondasun edo zerbitzuak ekoizteko erabilitako dirua (finantza kapitala) edo ekipamendua (kapital fisikoa).
- *Lana* → Gizakiek ekoizpenean diharduten denbora.
- *Teknologia* → Ekoizpen prozesuan erabiltzen den ezagutza eta teknika multzoa.

- EKOIZPEN-AUKEREN MUGA (EAM)

- **Ekoizpen-aukeren muga (EAM):** Gizarte batek denbora-aldi jakin batean ekoizti ahal dituen ondasunen eta zerbitzuen gehienezko kantitatea, ekoizpen-faktore eta teknologia-ezagutza jakin batzuk erabilita.
 - *Baliabide-eskasia:* Baliabideak mugatuak → aukeratzera behartzen gaitu.
 - *Aukera-kostua:* Hautatu gabe uzten diren aukerei uko egitea dakar berekin.
 - *Ekoizpen potentziala:* Efizientziaz jokatuz gero lor daitekeen ekoizpenik handiena.
 - *Efizientzia:* Erabilgarri dauden baliabideak teknologia jakin batekin modu ezin hobean erabiltzen da.

- Adib:



- **Konbinazio efizienteak**
- **Konbinazio lortezinak**
- **Konbinazio ez-efizienteak**

- EAMren DESPLAZAMENDUAK

- **Ekonomia-hazkundera:** Gizarte batean aldi jakin batean izandako ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenaren balio-handitzea.
 - Herri baten (ekonomia edo gizarte baten) hazkunde ekonomikoa EAMren desplazamendu baten bidez adieraz daiteke.
 - Ekonomia-hazkundera (EAMren gehikuntza): EAMren eskuinera desplazatuko da:
 - Lehen lortezinak ziren konbinazio batzuk orain posible izango dira.
 - EAMan efizienteak ziren puntu batzuk orain ez efizienteak izango dira.

- NOLA GERTATU DAITEKE EKONOMIA-HAZKUNDEA

- *Ekoizpen-faktoreak areagotzea*: Ondasunen ekoizpena areagotzeko, baliabide gehiago erabili behar da:
 - Natur-baliabideak aurkitzean.
 - Langile kopurua handitzean: biztanle kopurua handitzean, jarduera-tasa handitzean...
 - Kapital-hornikuntza handitzean.
 - Teknologia hobetzean.
- *Produktibitatea hobetzean*: Ekoizpen-faktore berak erabiliz, unitate gehiago ekoizteko aukera badago.
**EAM murrizten da kontrakoa gertatzen denean.*
- *Desplazamenduak paraleloak edo ez paraleloak izan daitezke*: Paraleloa izango da hazkundea eragiten duten faktoreek bi ondasunei berdin eragiten dienean. Ez-paraleloa, aldiz, faktoreetako bati bakarrik eragiten dionean.

- ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK

1) *Materialtasuna*

- Ondasunak: materialak
- Zerbitzuak: ez-materialak

2) *Eskasia maila*

- Ondasun askeak: mugagabeak (airea, eguzkia...)
- Ondasun/zerbitzu ekonomikoak: urriak dira eta prezio bat daukate

3) *Eginkizuna*

- Kapital ondasunak: Produktuak ekoizteko (makinak)
- Kontsumo ondasunak:
 - Iraunkorrak: etxea
 - Ez iraunkorra: arkatza

4) *Eraldatze-maila*

- Bitarteko ondasuna: egurra
- Ondasun bukatuak: altzaria

5) *Eskuragarritasuna*

- Pribatua
- Publikoa

- **Eragile ekonomikoak**: Jarduera bakoitzean erabakiak hartzen dituen eragilea.

- *Familiak* (kontsumitzaileak): Kontsumitu egiten dute eta baliabideak eskaini.
 - *Enpresak* (ekoizleak): Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenari eta banaketari buruzko erabakiak hartzen dituzte.
 - *Sektore publikoa*: Administrazio publikoek osatzen dute eta gizartearen ongizate mailaz arduratzen da.
- **Ekonomia-sistema**: Gizarte batek baliabide urrien bidez beharrak asetzeko eta, aldi berean, biztanleriaren artean banatzeko formulak erabiltzen dituen modua.
 - Ekonomia sistemak:
 - Merkatu ekonomiako sistema (kapitalismoa)
 - Ekonomia zentralizatuko sistema (komunismoa)
 - Ekonomia mistoko sistema (ongizate estatua)

Gizarte horretan dauden balore, iritzi eta erakundearen arabera erabakiko dugu zein sistema ekonomiko aukeratu.

1. EKONOMIA-SISTEMAK

1.1. EKONOMIA-SISTEMAK BEREIZTEKO IRIZPIDEAK

- Zein da erabaki ekonomikoak hartzeko erabiltzen den *mekanismoa*:
 - Merkatuko prezioak
 - Plangintza
- Zein *erakunde* hartuko du aktibitate ekonomikoaren erantzukizuna eta ekimena:
 - Estatua
 - Merkatua

1.2. DOKTRINA EKONOMIKOAK

- **Doktrina ekonomikoa**: Ekonomiaren funtzionamenduari buruzko ideien, iritzien eta teoriaren multzoa da. Hauek epealdi zehatz bateko eragin handiko ekonomilariek esaten dituzte arazo ekonomikoari irtenbide teorikoak aurkezten saiatzen direnean.

DOKTRINA (Ekonomilaria)	Hasi	Erabaki hartzea	Ekonomi sistema
LIBERALISMOA (A. Smith)	Industria Iraultza	Merkatua	Merkatu E.S
MARXISMOA (K. Marx)	Errusiar Iraultza	Estatua	P. zentralizatuko E.S.
KEYNESIANISMOA (J. M. Keynes)	II. Mundu Gerra	Estatua + Merkatua	Ekonomia mistoko S.

1.3. MERKATU-EKONOMIAKO SISTEMA (S. KAPITALISTA):

1.3.1. HASTAPENA

- Industria Iraultzarekin batera sortu zen.

- XVIII.mendearen amaieratik XX.mendearen lehenbiziko laurdenera arte.
- Kapitalismo huts-hutsa ez da inoiz ezarri, Ingalaterran XIX.mendeko epealdi batean izan ezik (“kapitalismo basatia”).
- Gaur egun, Estatu Batuetako eta Britainia Handiko ekonomiak dira eredu honetara gehien hurbiltzen direnak.
- Liberalismo ekonomikoaren doktrinan oinarritzen da, Adam Smithen eskutik hasita bere liburuarekin “Nazioen aberastasuna”.
- Familiek eta enpresek hartzen dituzte erabakiak (zer ekoitzi, zer kantitate, nola eta norentzat).
- Transakzioak errazteko bi tresna:
 - Ordainketa-modu unibertsala (dirua)
 - Erosleak eta saltzaileak ados jartzeko leku bat (merkatua)

1.3.2. 3 GALDERAK

1.3.2.1. Zer ondasun/zerbitzu ekoitzi eta zer kantitatetan?

- Enpresek familiek eskatzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzte, baldin eta errentagarria bazaie.
- Kantitatea familiek ordaintzeko prest dauden prezioaren arabera izango da, baita enpresen espektatiben arabera.

1.3.2.2. Nola ekoitzi eta banatu ondasun/zerbitzu horiek?

Enpresek errentagarri zaizkien faktore-konbinazioak aukeratuko dituzte; hau da, eskatzen zaiena ekoizteko aukera ematen dien konbinazioa, horren truke etekin bat lortuta, merkatuan bere produktuak eskaintzen jarraitu ahal izateko (kostuak minimizatzen/mozkinak maximizatzen).

1.3.2.3. Norentzat ekoitzi?

Ondasunei/zerbitzuei dagokien prezioa ordaindu ahal izateko errenta nahikoa dutenentzat.

1.3.3. DOKTRINA EKONOMIKOA (Liberalismoa)

- Liberalek estatuaren esku-hartze minimoa defendatu zuten, merkatua eta bere “esku ikusezina” ekonomiaren edozein oinarritzko arazo konpontzeko gai baitira.
- “Esku ikusezina” Adam Smithen XVIII.mendean sortutako kontzeptua da, ekonomia kapitalistako merkatuen funtzionamendua azaltzeko. Merkatu-ekonomikoak nola lortzen duen norberaren interes propioa gizartearen interesa ere izateko azaltzeko erabiltzen da.
- “Esku ikusezina” ekonomistek deritzoten “esleipen eraginkorra”ra ondasun eta zerbitzuen banaketarik onena ekonomian) ailegatzeko bidea ahalbidetzen du.

1.3.4. BESTE EZAUGARRIAK

- Ez dago autoritate zentralik norberaren jokabidea zein izan behar den esateko, bakoitza bere buruaz arduratzen da.
- Estatu edo Sektore Publikoak ez du ia esku hartzen. Lege eta erakunde-esparru bat bermatzen du gizarteak bere burua antola dezan, enpresen eta partikularren arteko merkatu askeak funtziona dezan.
- Estatuaren funtzio nagusiak: jabetza babestea, gatazketan bitartekaritza (epaitegiak) eta jarduera subsidiarioak lehia ez osoa edo mugatua dagoen kasuetan.
- Ekoizpen-faktoreak gehien bat pribatuak dira (natur-baliabideak, teknologia, makinak...)
- Ekoizpen eta kontsumo askatasuna dago (norberaren interesaren maximizazioan oinarrituta):
 - Lehia askea ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko.
 - Kontsumitzaileek askatasunez hauta dezakete zer erosi (ongizatea maximizatu).
- Salmentek eta prezioek seinale-sistema bat balira bezala funtzionatzen dute.
 - Enpresek prezio altuegia jartzen badiete produktuei, ez saltzeko arriskua dute, baina prezioa txikiegia bada, gerta liteke izakinak agortzea edota saltzean inolako etekinik ez lortzea.
 - Enpresek salmentak bermatuta (eskaria) dituzten edo prezio altuan saldu daitezkeen ondasun eta zerbitzuen ekoizpena handitzen saiatuko dira, eta alde batera utziko dituzte (edo kantitate txikiagoan ekoitziko) kontsumitzaileek erostera prest ez dauden produktuak edo errentagarritasun baxua ematen dizkietenak.
- Kontsumitzaile eta enpresen arteko komunikazioa ez da zuzena, prezioek eta salmentek berez “komunikatzen” dira (“esku ikusezina”).

1.3.5. ABANTAILAK

- Pertsonak bere lehentasunen eta baliabideen arabera kontsumitu (familiek) eta ekoizten (enpresek) dute (askatasun ekonomikoa).
- Ekonomiaren aldaketei arin aurre egitea ahalbidetzen du (malgutasuna).
- Enpresen/ekoizleen arteko lehiak ondasun eta zerbitzuak ahalik eta prezio “onenean” eskuratzea ahalbidetzen du eta gainera, ondasun eta zerbitzuen berrikuntza eta hobekuntza bultzatzen ditu.

1.3.6. DESABANTAILAK

- Ezegonkortasun ziklikoa (oparaldi eta krisialdi txandaketa) merkatu-ekonomia ekimen pribatuaren esku baitago eta ekimen hori aldakorra delako.

- Ondasun ez-errentagarrien eskasia. Enpresek ondasun errentagarriak soilik ekoizten badituzte, ondasun ez errentagarriak ez dira egongo eta beraz, hauen hornidura eta kudeaketa sektore publikoak egin beharko du, eta, askotan, galera handiak edo ekoizpen-efizientzia kaskarra izaten dira jarduera horietan (osasuna, azpiegiturak, justizia...)
- Kutsadura sortzea eta ingurumena hondatzea ondasun eta zerbitzuen ekoizpenarekin batera, merkatuak aintzat hartzen ez dituen zenbait ondorio negatibo sor daitezkeelako.
- Zenbait enpresak desorekak sortzen dituzte merkatuan, euren nagusitasuna baliatuz (zenbait enpresen gehiegikeriak). Esaterako, prezioa edo salmenta-baldintzak finkatzeko boterea dutenean edo egiten dituzten publizitate-kanpainek behar artifizialak sortzen dituztenean kontsumitzaileei.
- Errentaren banaketa desberdina. Enpresek eskaintako ondasun eta zerbitzuen prezioa ordaintzeko behar adina diru-sarrera dituztenek soilik adierazten dute euren gogoia merkatuan.

1.4. PLANGINTZA ZENTRALIZATUKO EKONOMIA-SISTEMA

1.4.1. HASTAPENA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

- Sobietar Batasunean sortu zen Errusiar Iraultza (1917) eta I. Mundu Gerra ondoren (1914-1918).
- Karl Marxen XIX.mendearen teorietan oinarrituta.
- Ekialdeko Europara zabaldu zen momentu horretako desoreka sozialei (gizarte maila pobrea), ekonomikoei (atzerakuntza ekonomikoa) eta politikoei (erregimen politiko-autoritarioak) konponbidea eman nahian.
- Estatuak edo sektore-publikoa da ekonomia-eragile garrantzitsu bakarra.
- Helburu nagusia: Errentaren berdintasuna.
- Plangintza zentralizatua egiten duen organo baten bidez antolatzen eta zuzentzen da ekonomia-jarduera.
- Zenbait urtetarako ekonomia-planak: baliabideen hornikuntza, enpresen ekoizpen metodoak, langileen soldatak, ekoizpe-helburuak, inbertsioak...
- Hasieran arrakasta (enplegua, osasuna, hezkuntza...)

1.4.2. 3 GALDERAK

1.4.2.1. Zer ondasun eta zerbitzu ekoitzi, eta zer kantitatetan?

Estatuak (sektore-publikoak), plangintza zentralizatuaren bidez, erabakitzen du, gizarteak dituen lehentasunen arabera eta ez irizpide ekonomikoei jarraituz (merkatu-ekonomian bezala).

1.4.2.2. Nola ekoitzi eta banatu ondasun eta zerbitzu horiek?

Plangintzaren bitartez eraikitzen da, enpresek urtebeteko edo bost urteko aurreikuspenak eginez.

1.4.2.3. *Norentzat ekoitzi?*

Estatuak plangintza zentralizatuan ezarritako irizpideen bitartez erabakitzen du gizartearen beharrianak asetzea dela helburu.

1.4.3. **DOKTRINA EKONOMIKOA (Marxismoa)**

- Ideologia marxistan oinarritzen da.
- Karl Marx, "El Capital" (Alemania, 1867)
- Merkatu-ekonomiako sistema → klase borroka

1.4.4. **ABANTAILAK**

- *Errentaren berdintasunezko banaketa* eta desberdintasun sozialen desagerpena.
- *Oinarrizko beharrak asetzen dira* Estatuaren bitartez (enplegua, osasuna, hezkuntza)
- Ez dago ekoizpen-faktoreen jabetza pribaturik Estatu baina jabe bakarra. Beraz, *enpresek ezin dute porrotik izan*, nahiz eta defizitarioak izan.
- *Krisialdiak ekiditen saiatzen da* (ez du ziklo ekonomiko handirik jasaten).
- Enplegu osoa ziurtatuta dago.

1.4.5. **XX. MENDEKO PORROTAREN ZERGATIAK (Eragozpenak)**

- *Aurreikuspen akatsak*
 - Ez zuten beti asmatzen aurreikuspenak egiten eta baliabideak esleitzen.
 - Agintarien eta gizartearen interes ekonomikoak ez zetozen bat.
 - Plangintzak ez ziren errealitatera egokitzen, eta erreakzio-ahalmena urria zen.
 - Eskaintza eta eskariaren arteko orekarik eza: Ondasunen eta zerbitzuen eskasia edo soberakina.
- *Pizgarriak eza*
 - Enpresen arteko lehiarik ez.
 - Ezeginkortasun jokaerak (baliabideen zarrastalkeria).
 - Berrikuntza teknikoa geldiarazi eta produktuen kalitatearekiko ezaxola.
 - Langileak ez ziren ahalegintzen lana hobeto egiten hil amaieran berdina jasoko baitzuten.
- *Gehiegizko burokrazia*
 - Geldotasuna eta efizientziarik eza.

1.4.6. **IRTENBIDEAK**

Beren ahuleziak konpontzeko *hiru irtenbide* topatu zituzten:

- Sistema sozialistaren sustraiei eutsi, eta derrigorrezko erreformak egin → Kuba
- Sistema sozialista eta sistema kapitalistaren arteko irtenbidea topatu → Txinako Herri Errepublikak
- Merkatu-sistema bilakatu → Ekialdeko Europako herri sozialista gehienak

Gaur egun, herrialde gehienek, ez dute sistema kapitalista edo sozialista hutsa defendatzen → Ekonomia-sistema mistoa.

1.5. EKONOMIA MISTOKO SISTEMA

1.5.1. HASTAPENA

- Merkatu-ekonomiaren krisi garrantzitsuena: AEBn izandako krisialdia (Depresio Handia, 1929).
- Konturatu ziren merkatuak bakarrik ez zuela konpontzen zenbait arazo ekonomiko larri: langabezia, inflazio altua, eskariaren eskasia...
- Beraz... Estatuaren parte-hartzea beharrezkoa krisialditik ateratzeko.
- II. Mundu Gerraren ondoren (1938-1945) jarri zen martxan.
- Merkatuak jarraitu baliabideen "esletzaile" nagusi izaten, baina Estatuaren eskuhartzea aktobiagoa izango zen, desdoizteak zuzentzeko.
- Adibidea: Ongizate Estatua

1.5.2. ESTATUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK

- *Lege- eta erakunde esparrua ezartzea* → oinarrizko arau eta legeak biztanle guztiak babesteko (gutxieneko lan-baldintzak, enpresen arteko lehia babestu, ingurumenaren babesa, gizarte-prestazioak...).
- *Interes publikoko ondasun eta zerbitzuen eskaintza bermatzea* (garraioa, hezkuntza, osasuna, segurtasuna, justizia...).
- *Errenta birbanatzea*. Biztanle guztien gutxieneko ongizatea bermatzeko, sektore publikoa alde sozioekonomikoak zuzentzen saiatzen da (erretiro-pentsioak, familia ugarietarako laguntzak, enpresei lanpostuak sortzeagatik ematen zaizkien dirulaguntzak...)
- *Ezengonkortasun ziklikoa arintzea*. Merkatu-ekonomia ekimen pribatuaren mende dagoenez, hedaldiak eta atzeraldiak txandakatzen dira; beraz, Estatuaren ardura da ziklo horien arteko trantsizioak ahalik eta leunenak izatea. Horretarako, hainbat politika ekonomiko ditu.

1.5.3. 3 GALDERAK

1.5.3.1. Zer ondasun eta zerbitzu ekoitzi, eta zer kantitatetan?

- Enpresek familiek eskatzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzte.

- Estatuak gizartearentzat ezinbestekoak diren ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, enpresek ekoizten ez dituztenak.

1.5.3.2. *Nola ekoitzi eta banatu ondasun eta zerbitzu hoiek?*

- Enpresek errentagarri zaizkien faktore-konbinazioekin ekoiztuko dute (mozkinak maximizatzen).
- Estatuak ongizate maila altuena lortzeko eta gizartearen beharrianak betetzeko helburuekin ekoizten du.

1.5.3.3. *Norentzat ekoitzi?*

- Ondasunei eta zerbitzuei enpresek jarritako prezioa ordaindu ahal izateko errenta nahikoa dutenentzat.
- Errenta nahikorik ez dutenentzat (Estatuak ondasun & zerbitzuak eskaintzen ditu errenta nahikoa ez dutenentzat).

1.5.4. **DOKTRINA EKONOMIKOA (Keynesianismoa)**

- John Maynard Keynes, ekonomia-mistoko ideologoa eta aholkularia izan zen, merkatuaren seinaleak eta Estatu elkarrekin aritzea proposatu baitzeun arazo ekonomikoei aurre egiteko.
- *"Okupazio, interes eta diruaren teoria orokorra"* (1936) izenburuko bere liburuan oinarrituta estatuaren esku-hartzearen politika defendatzen zuen atzeraldi ekonomiko baten ondorioak gutxitzeko.
- Hainbat herrialdek 30. hamarkadan planteamendu hau martxan jarri zuten 1929an hasitako krisia gainditzeko.

1.5.5. **ABANTAILAK**

Merkatu-ekonomiako eta plangitza zentralizatuko sistemen erdibidean dagoenez, bi sistema horien abantailak eta desabantailak bereganatuko ditu, sektore publikoaren esku-hartze mailaren arabera.

- **Abantail nagusiak:**
 - Familiek eta enpresek beren lehentasunen eta baliabideen arabera kontsumitu eta ekoizten dute.
 - Sektore publikoak merkatuko desdoitzeak zuzentzeko parte hartzen du.

1.5.6. **DESABANTAILAK**

- Estatu eta merkatuaren arteko funtzionamenduan desoreka badago, aurreko bi sistemek izandako eragozpen berdina izango ditu.
- Merkatu ez-perfektuen presentzia (monopolioak, oligopolioak).
- Errentaren banaketa desberdina.
- Ezegonkortasun ekonomikoaren arriskua.

- Ez dago gizarte babes askorik.

1.5. ARIKETA (Taula)

	MERKATU EKONOMIA	PLANGINTZA ZENTRALIZATUA	EKONOMIA MISTOA
Erabaki-hartzea	Merkatuak	Estatuak	Merkatuak + Estatuak
Jabegoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua + publikoa
Ekoizpenaren planifikazioa	Enpresek	Estatuak	Enpresek + Estatuak
Helburu nagusia	Interes indibiduala	Errentaren banaketa berdina	*Esp. Prib. → Interes indibiduala *Esp. Pub. → Interes kolektiboa
Nola? Zehazten dira prezioak	Eskaintza eta eskariaren legea	Plangintza zentralizatua	*Esp. Prib. → Eskaintza eta eskariaren legea. *Esp. Pub. → Estatuak ezarritakoa
Estatuaren eginkizuna	Merkatuaren askatasuna bermatzea	Errentaren banaketa berdina	*Lege eta erakunde espazioa ezartzea. *Interes publikoko ondasun eta zerbitzuen eskaintza bermatzea. *Errenta birbanatzea. *Ezgonkortasun ziklikoa arintzea
Doktrina eko.	Liberalismoa	Marxismoa	Keynesianismoa
Adibideak	AEB, Canada...	Txina, Venezuela...	Espainiar Estatuak, Mexico, Perú...

1.6. ARIKETA

Zein da merkatu-ekonomia baten ezaugarria? Arrozitu zure erantzuna.

- Esku ikusezinak norberaren interesa gizartearen interesara bideratzen du.***
- Autoritate zentral batek ekoizpen eta kontsumoaren erabakiak hartzen ditu.***

Merkatuak hartzen du erabakia. Plangintza zentralizatuan, berriz, bai gertatzen da.

- Interes propioaren bilaketak merkatu akatsak ekartzen ditu batzuetan.***
- Merkatu ekonomia baten hazkundea egonkorra eta gorabehera gabekoa da.***

Ezgonkortasun ziklikoa ohikoa da.

1.7. ARIKETA

1) Zer da sistema ekonomikoa?

Herrialde baten jarduera ekonomikoa antolatzeko era. Arau, erakunde eta balorren arteko aukerei jarraituz.

2) Sistema ekonomikoa nolakoa den azaltzean, zein galderei erantzuten diegu?

Zer/zenbat, nola eta norentzat.

3) Zergatik aldatzen du gizarteak sistema ekonomikoa? Sistema ekonomikoaren aldaketak azkar egiten dira?

Gertakari baten ondorioz aldatzen du. Ez da azkar egiten, trantsizio prozesu bat ematen da.

4) Zein kritika egin zion Marx-ek sistema kapitalistari?

Klase borroka → Ekoizpen faktoreen jabeak (kapitalistak ziren) haien nagusitasunaz baliatzen ziren langileak (proletarria) esplotatzeko.

5) Gaur egun, zein sistema ekonomiko da nagusi munduan?

Ekonomia mistoa (Ongizate estatua).

6) Zer adierazten du “eskaria eta eskaintzaren legea” terminoak?

Eskaria eta eskaintza bat datozenean prezioak zehazten dira.

7) Zer da sistema ekonomiko mistoa?

Merkatua+Estatua

8) Zein helburu dauzka Estatuak sistema mistoetan? Zure ustez, betetzen ditu?

- Lege eta esparru erakundea ezartzea.
- Interes publikoko ondasun eta zerbitzuak eskaintzea.
- Errenta birbanatzea eta ezegonkortasun ziklikoa apaltzea politika ekonomikoa eginez.

9) Sistema sozialistetan, Estatuaren plan ekonomikoak arrakastatsuak izan dira? Zergatik?

Ez (hasieran bai). Aurreikuspen akatzak, pizgarririk eza, gehiegizko burokrazia direla eta.

IRAKURKETA I (Merkatu-ekonomiako sistemaren funtzionamendua: esku ikusezina)

1. Adam Smithen ustez, bene-benetako zer motibazio direla-eta hartzen dituzte pertsonak erabakiak? Berekoikeria dela-eta.

2. Adam Smithen ustez, nola egingo lukete bat interes publikoak eta interes pribatuak?

Esku ikusezinaren bidez.

3. Azaldu egileak adierazitako esku ikusezinaren kontzeptua.

Gizakiok norberaren onura bilatzen dugu. Hori egiterakoan esku ikusezin batek bultzatzen du gizakia, bere helburuetan ez dagoen xedea sustatzera. Hau da, bakoitzak bere ongizatea lortu nahian gizartearen ongizatea lortuko da.

4. **Merkatu-ekonomiako sistemako eragozpenetako bat zenbait enpresaren boteregehikeriak dira. “Esku ikusezinak” horrelakoetan ere jardungo lukeela uste al duzu?**

Ez, izan ere esku hori ez da fisikoa eta ez du pertsona batek kontrolatzen.

IRAKURKETA II (Ekonomia Marxista)

1. **Marxen arabera, zein da gizarte bateko gizarte-aldaketen azken kausa?**

Ekoizpen- eta truke- metodoetan egondako aldaketak.

2. **Zein da Marxen obraren helburua?**

Sistema kapitalistaren funtzionamendu legeak aurkitzea.

3. **Eman gainbalioaren kontzeptua argi eta garbi adierazten duen adibide bat.**

4. **Zer esan nahi du “esperimentu hori gauzatzea posiblea zela, nahiz eta epe luzera bideragarria izan ez” esaldiak?**

Hasieran marxismoa aukera on bat izan zela baina epe luzera ez zela bideragarria.

- BESTE EKONOMIA MOTA BATZUK

1. Ekonomia ekologikoa

Giza ekonomiaren eta ekosistema naturalen artean denboran eta espazioan dauden elkarmenpekotasunak eta koeboluzioa aztertzen dituen zientzia da. Ekonomista ekologikoez jasangarritasun sendoan jartzen dute garrantzia, eta baztertu egiten dute gizakiak sortutako kapitalak ondare naturala ordezkatzeko.

2. Ekonomia feminista

Ekonomia feminista ekonomiaren azterketa kritikoa da, metodologia, etimologia, historia eta ikerketa enpirikoa barne, oinarri androzentrikoak gainditzen saiatuz. Emakumeentzat garrantzi berezia duten gaietan oinarritzen da, hala nola, hirugarrenentzako zainketa-lanetan edo lanerako bereizketan.

3. Ekonomia solidarioa

Gizakiaren balorizazioan oinarritzen den ekonomia-mota bat da, ez kapitalaren lehentasunean. Elkartegintza, lankidetzak eta autogestioak sustatzen ditu, eta produkzioa, kontsumo eta ondasunak eta zerbitzuak merkaturatzerantz bideratuta dago, batez ere autogestionatuta, bizitza gehiago garatzea helburu duela.

4. Gizarte ekonomia

Prozesu politikan oinarritzen da. Gizarte Ekonomia eta Soziala ekonomia egiteko moduzat definitzen da, antolaketa eta kooperazio batekin.

produkzioa, banaketa, eta ondasun eta zerbitzuen kontsumoa aurrera eramaten dira.

5.

2. GAIA: ANALISI MIKROEKONOMIKOA: MERKATU EKONOMIAK

Eskaria → Kontsumitzaileak/erosleak

Eskaintza → Ekoizleak/saltzaileak

Input → Ekoizpen faktorea

Output → Produktu bukatua (ekoizpena)

- MERKATUAREN FUNTZIOAK

1. Enpresek (saltzaileek) eta kontsumitzaileek (erosleek) ondasun edo zerbitzu jakin baten inguruan egiten dituzten salerosketa-jarduera guztiak biltzen ditu.
2. Merkatu-ekonomian eta ekonomia-sistema mistoen oinarria edo ardatza da.
3. Trukea errazten du, eskari eta eskaintzaren funtzionamendu askeari esker

- MERKATUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK

1. **Enpresen kopurua.** Enpresa asko? Gutxi batzuk? Bat bakarrik?
2. **Enpresen eragina prezioan.** Handia? Nolabaitekoa? Batere ez?
3. **Ondasunaren homegeneotasun-maila.** Ba al dago ondasuna desberdintzerik? Ez badago desberdintzerik ondasun homogeneoa izango da. Adib: gasolinaren merkatua. Nork jakingo luke zer-petrolio enpresak ekoiztu duen gasolina jakin bat? Aldiz, produktuak kontsumitzaileak bereizteko moduko ezaugarriren bat baldin badu (ikusgarria nahiz ikusezina), ondasun berezia dela esaten da.
4. **Lehia intensitatea.** Ba al dago lehiarik? Lehia bizia da?
5. **Merkatuaren gardentasun-maila.** Erosleek eta saltzaileek salerosketeei dagokion informazio guztia (prezioak barne) ezagutzen al dute? Merkatuak zehazten ditu prezioak?
6. **Sartzeko eta ireteteko askatasuna (hesiak?).** Ba al daude oztopoak saltzaileek merkatuan sartzeko edota hortik irteteko?

- MERKATU MOTAK

- *Lehia perfektuko merkatuak*

- Ondasunak eta zerbitzuak borondatez trukutzen dira merkatuak finkatutako prezioan, eskaria eta eskaintzaren legearen funtzionamendu askeari esker.
- Ondasun homogeneoak eskaintzen dira.
- Enpresa bakar batek ere ez du prezioan eragina izateko adinako ahalmena. Beraz, enpresa guztiak prezio-onartzaileak dira.
- Enpresa guztiak baldintza berdinetan aritzen dira lehian (lehia askea eta perfektua)
- Praktikan oso merkatu gutxi daude eredu honekin.

- **Lehia inperfektuko merkatuak:**

- Ohikoenak
- Enpresa batek edo batzuek prezioan eragiteko ahalmena dute. Enpresen kopurua zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta ahalmen handiagoa izango dute prezioan eragiteko.
- Lehia inperfektuko merkatuak: Monopolioa, Oligopolioa eta Lehia monopolista

❖ **Monopolioa**

- Ez dago lehiarik. Enpresa bakar batek ekoizten du ondasun edo zerbitzua.
- Berak zehazten ditu prezioak, zenbat ekoitzi...
- Sartzeko ostopoak
- **Sartzeko moduak**
 - Baliabide bat eskuratzeko eskusiba izatea
 - Lege-eskubideak izatea: patenteak edo administrazio-emakida
- **Adibidez:** Renfe...

❖ **Oligopolioa**

- Enpresa gutxi daude merkatu horretan
- Prezioan eragiteko ahalmena dute
- Oligopolistak beste oligopolisten eraginaren menpe daude
- Sartzeko ostopoa: sartzeko kapital-inbertsio handia behar da.
- **Adibidez:** Supermerkatuak, Telefono konpainiak...

❖ **Lehia monopolista**

- Gaur egun gehien ematen dena da.
- Enpresa ugari daude.
- Erabilgarritasun bera duten antzeko produktuak eskaintzen dituzte.
- Produktuek nolabaiteko berezitasunak dituzte bezeroak leihatzeke.
- Enpresek nolabaiteko ahalmena dute baldintzetan edo prezioetan eragiteko, bezeroaren lehialtasunari esker.
- **Adibidez:** Fast food enpresak

2.1.ARIKETA: Merkatu motak

	Lehia perfektua	Lehia inperfektua		
Merkatuaren ezaugarriak	L. PERFEKTUA	L. MONOPOLISTA	OLIGOPOLIOA	MONOPOLIOA
Enpresa kopurua	Asko	Asko	Gutxi	1
Enpresen eragina prezioan	Ez	Txikia	Bai	Erabatekoa
Ondasunaren desberdintze-maila	Homogeneoa	Heterogeneoa	Homogeneoa	Berdin da
Lehiaren intentsitatea	Lehia bizia	Lehia bizia	Lehia bizia	Ez dago lehiarik
Gardentasuna	Bai	Ez	Ez	Ez
Sartzeko/irteteko ostopoak	Ez	Produktua bereizteko esfortzua	Kapital inbertsio handiak	Patentea Eskusua

- MERKATU-KUOTA

- **Merkatu-kuota:** Enpresa baten posizioa gainerako lehiakideekiko neurtzen du.
- Enpresa baten merkatu-kuota zenbat eta handiagoa, orduan eta kontrol handiagoa izango du enpresa horrek merkatuan.

$$\text{Merkatu-kuota} = \frac{\text{Enpresa baten salmentak}}{\text{Guztizko salmentak}} \times 100$$

2.2.ARIKETA

A argitaletxeak ekonomiako liburuaren 90.000 ale saldu ditu 2018-2019 ikasturterako. Argitaletxe guztien (A argitaletxea barne hartuta) salmentak 450.000 alekoak izan dira. Datu horiek kontutan izanda, zenbateko merkatu-kuota du A argitaletxeak? Interpretatu ezazu zure emaitza:

Enpresa horrek %20ko merkatu kuota izango du. Hau da, merkatu horretan saldutako ale guztien %20 enpresa horrek saldu du.

2.3.ARIKETA

Arrazoi ezazu zein motatako industriak diren hurrengoak (monopolioa, oligopolioa, duopolioa, lehia monopolista, lehia perfektua):

1. **Petrolioaren industria non Persiar Golko ondoan dauden herrialde gutxi batzuk kontrolatzen dute munduko petrolio erreserben zati handia.**

Oligopolioa: Enpresa gutxik prezioan eragiten dute.

2. **Esnearen industria.**

Lehia perfektuko merkatua: Enpresa asko, merkatu askea, ondasun homogeneoak.

3. Duela urte batzuk, IBERIA Espainiatik hegaldiak eskaintzen zituen konpainia bakarra zen.

Monopolioa: Enpresa bakar batek prezioan eragiteko ahalmen osoa zeukan.

4. Janari lasterreko industria.

Lehia monopolista

5. Hegazkin handien eraikuntzaren industria Boeing enpresa estatubatuarra eta Airbus enpresa europarrak osatzen dute

Oligopolioa: Enpresa gutxik prezioan eragiten dute. Kasu honetan “duopolioa” izango litzateke.

- MERKATUAREN MEKANISMOA: Eskaria eta eskaintza

- Merkatuaren funtzionamendua aztertzeko lehia perfektuko merkatua eredutzat erabiliko dugu:

- Erosle asko, ekoizle asko eskaintzen ondasun edo zerbitzu berdina, ezin dute prezioan eragin
- *Ekoizleen helburua*: mozkinak maximizatzea. Prezio altuagoan, ondasunaren eskaintza handiagoa izango da.
- *Kontsumitzaileen helburua*: ondasunaren prezioa merkeagoa denean, kantitate gehiago erosteko prest egongo dira.

- Eskari-kurba

❖ *Eskariaren plana*

Kontsumitzaileek ondasun edo zerbitzu batetik prezio bakoitzerako erosteko prest dauden kantitatea erakusten duen taula da.

❖ *Eskatutako kantitatea*

Kontsumitzaileek ondasun edo zerbitzu batetik erosi nahi duten unitate kopurua (Q) prezio jakin baterako (P).

❖ *Merkatuaren eskaria*


Ondasun edo zerbitzu baterako banakako eskari guztien gehiketa da.

❖ *Eskari planaren irudikapen grafikoa*

Eskari-kurba (D): kontsumitzaileak prezio bakoitzean (P) erosteko prest dauden kantitatea erakusten du.


❖ *Eskariaren legea*

Ondasunaren prezioa igotzerakoan, kontsumitzaileek ondasun unitate gutxiago eskuratu nahiko dute. Hau da, kontsumitzaileen jokabidea zentzuzkoa izanik, eskariaren kurba beheranzkoa da (malda negatiboa).




❖ *Eskaria aldatzeko eragileak*

Kontsumitzaileek eskatu nahi duten ondasun baten kopurua aldatuko da baldin eta hurrengoak aldatzen bada:



❖ *Eskari-kurbaren barruko mugimendua*


Prezioa (P) igotzen denean kontsumitzaileek kantitate (Q) gutxiago eskatuko dute, beraz, eskari kurbaren barruan mugimendu bat dago A puntutik B puntura.



- Interpretazioa: Ondasunaren kantitatea murrizten da bere prezioa igotzen denean, beste guztia finko mantenduz (ceteris paribus).

❖ *Eskari-kurbaren lekualdatzea*

Prezioa ez den eragile bat aldatzen denean (lotutako ondasunen prezioak, kontsumitzaileen diru-sarreak, lehentasunak, aurreikuspenak, kopurua), eskari-kurba lekualdatzen da planoan bere posizioa aldatuz.



- Interpretazioa: Eskariaren kurban eskubira (edo ezkerera) lekualdatzen da kontsumitzaileen eskaria igo (edo murriztu) egin delako edozein preziotan X eragilearen ondorioz.

❖ *Eskari-kurba lekualdatzen duten faktoreak*

1. Lotutako ondasunen prezioak:

- *Ondasun osagarriak*: batera kontsumitzen diren ondasunak dira. Ezin da bat kontsumitu bestea kontsumitu gabe. Adibidez, autoak eta gasolina, oinetakoak eta lokarriak. Beraz, jatorrizko ondasunaren prezioa igotzean, osagarrian eskatutako kantitatea ere murrizten da (eta alderantziz).
- *Ondasun ordezkagarriak*: ondasun bi beharizan berbera betetzeko baliagarriak direnean. Adibidez, azukrea eta sakarina, tea eta kafea. Beraz, ondasun ordezkagarri baten prezioak gora egiten badu, haren eskariak behera egingo du, beste ordezeko ondasun baten mesedetan (hau da, bestearen eskaria igoko da) (eta alderantziz).

2. Kontsumitzaileen diru-sarrerak:

- *Ondasun arruntak:* Ondasun hauen eskatutako kantitateak kontsumitzaileen errentaren proportzio berean egiten du gora. Ondasun eta zerbitzu gehienak kategoria honetakoak dira. Adibidez: etxebizitza, etxetresna elektrikoak, automobila...
 - Luxuzko ondasunak: Errentak gora egitean haien kontsumoa nabarmen igotzen da (errentaren proportzio baino handiagoan egiten du gora) (eta alderantziz). Adibidez: bitxiak, kirol-autoak...
 - Beharriazko ondasunak: Errentak gora egitean haien kontsumoa errentaren proportzio baino baxuagoan egiten du gora (eta alderantziz). Adib.: esnea, ogia...
- *Behe-mailako ondasunak:* Kontsumitzailearen diru-sarrerak gora egitean gutxiago erosten diren ondasunak. Adibidez, bigarren eskuko arropa, garraio publikoa, janari lasterra, mahaiko ardoa...

3. Kontsumitzaileen lehentasunak:

Ondasun batekiko aldatu ahal dira moda, sinesmenak edo kultur aldaketak direla medio. Adibidez, kanpai-prakak, kapelaren erabilera...

- Kontsumitzaileen lehentasunak ondasunaren mesedetara aldatzen badira, eskaria igoko da.

4. Kontsumitzaileen aurreikuspenak:

- Prezioan espero diren aldaketak (Adib.: beherapenak).
 - Kontsumitzaileek etorkizunean ondasunaren prezio murriztea espero badute, gaur egun gutxiago eskatuko dute.
- Etorkizuneko errentan espero diren aldaketak (Adib. Gabonetako aparteko ordainsaria)
 - Kontsumitzaileek etorkizunean euren errenta igotzea espero badute, gaur egun gutxiago eskatuko dute.


5. Kontsumitzaileen kopurua merkatuan:

- Merkatuaren eskari-kurba merkatuan dauden kontsumitzaile bakoitzaren eskarien gehiketa da.
- Beraz... kontsumitzaileen kopurua igotzen bada eskaria handituko da merkatuaren eskaria igoz.

- Zein aldetara lekualdatzen da eskari-kurba?

Eskatutako kantitatea igo (eskari-kurba eskubira)	Eskatutako kantitatea jaitsi (eskari-kurba ezkerrera)
Ordezko ondasunen prezioak ↑ egitean	Ordezko ondasunen prezioak ↓ egitean
Ondasun osagarrien prezioak ↓ egitean	Ondasun osagarrien prezioak ↑ egitean
Errentak ↑ egitean (ondasun arrunta edo luxuzko ondasuna bada)	Errentak ↓ egitean (ondasun arrunta edo luxuzko ondasuna bada)
Errenta ↓ egitean (1.mailako ondasuna bada)	Errentak ↑ egitean (1.mailako ondasuna bada)
Gustuak / Moda / kultura ondasunaren alde aldatzean	Gustuak / Moda / Kultura ondasunaren kontra aldatzean
Etorkizunean ondasunaren prezioa ↑ espero denean	Etorkizunean ondasunaren prezioa ↓ espero denean
Etorkizunean errenta ↓ espero denean	Etorkizunean errenta ↑ espero denean
Kontsumitzaile kopurua ↑ denean	Kontsumitzaile kopurua ↓ denean

2.4.ARIKETA

Adierazi zer motatako mugimendua (gora edo behera) edo lekualdaketa (ezkerra edo eskubia) duen kafearen eskari kurbak, aldaketa hauetakoren bat gertatuz gero. Arrazoitu zure erantzuna eta egin dagokion irudikapen grafikoa: 

- *Kafearen prezioak gora egitea* → Goranzko mugimendua.
- *Tearen prezioak behera egitea* → Ezkerrera. Kafearen eskaria jaitsiko da Tea eta Kafea ondasun ordezkagarriak direlako.
- *Esnearen prezioak gora egitea* → Ezkerrera. Kafearen eskaria jaitsiko da Esnea eta Kafea ondasun osagarriak direlako.
- *Kafearen aldeko publizitate kanpaina* → Eskumara. Eskariak gora egingo du.
- *Tearen aldeko publizitate kanpaina* → Ezkerrera. Eskaria jaitsiko da Tea eta Kafea ondasun ordezkagarriak direlako.
- Kafearen beherapenak hurrengo hilabetean → Ezkerrera. Oraingo kafearen eskariak behera egingo du datorren hilabetean gehiago kontsumituko delako.
- *Familiek diru-laguntza bat jasotzea kontsumoa bultzatzeko* → Eskumara. Gehiago kontsumituko da
- *Kafearen prezioak behera egitea* → Beheranzko mugimendua.

- Eskariaren elastikotasuna

- Enpresa batek ondasunen prezioak jaitsiz gero, ondasun horien eskariak gora egingo du, eta ondorioz, salmentak ere bai; baina diru-sarrera altuagoak izango ditu? Etekin handiagoa lortuko al du gehiago saltzean?

$$E_p = \frac{\text{Eskatutako kantitatearen porzentajeko aldaketa}}{\text{Prezioaren porzentajeko aldaketa}}$$

$$E_p = \frac{\frac{\Delta Q_d}{Q_d}}{\frac{\Delta P}{P}} = 100$$

- **Eskariaren elastikotasunak (E_p)** ondasun baten prezioa aldatzean eskatutako ondasun kantitatea zenbat aldatuko den neurtzen du.

- Hiru emaitza mota

$E_p < 1$	$E_p = 1$	$E_p > 1$
Ez-elastikoak		Elastikoak
Qd-ren < aldaketa prezioaren aldaketa	Qd-ren = aldaketa prezioaren aldaketa	Qd-ren > aldaketa prezioaren aldaketa
- Prezioa ↓ → diru sarrerak ↓ - Prezioa ↑ → diru sarrerak ↑	Diru-sarrerak ez dira aldatzen	- Prezioa ↓ → diru sarrerak ↑ - Prezioa ↑ → diru sarrerak ↓
Ondasun ez oso sentikorrek prezio-aldaketekiko (ogia)	la ezinezkoa da horrelakoak aurkitzea	Ondasun oso sentikorrek prezio-aldaketekiko (luxuzko ondasunak)

2.5.ARIKETA

Astero dendari batek 15 bonboi-kaxa saltzen ditu unitateko 2 euroko prezioan. Aukera bakoitzeko kalkulatu prezio-elastikotasuna eta aukera hauen bidez dendariak lortuko lituzkeen diru-sarrerak. Interpretatu erantzunak:

- Bonboien prezioa unitateko 1,8 eura jaistean, 18 kaxa saltzen dira.
- Bonboien prezioa unitateko 3 eura igoz, 13 kaxa saltzen dira.

- Eskaintza-kurba

❖ *Eskaintzaren plana*

Ekoizleek (edo enpresek) ondasun edo zerbitzu batetik prezio bakoitzerako eskaintzeko prest dauden kantitatea erakusten duen taula da.

❖ *Eskaintako kantitatea*


Ekoizleek ondasun edo zerbitzu batetik eskaini nahi duten unitate kopurua (Q) prezio jakin baterako (P).

❖ *Merkatuaren eskaintza*

Ondasun edo zerbitzu baterako banakako eskaintza guztien gehiketa da.

❖ *Eskaintza planaren irudikapen grafikoa*

Eskaintza-kurba (S): ekoizleak prezio bakoitzean (P) eskaintzeko prest dauden kantitatea erakusten du.




❖ *Eskaintzaren legea:*

Ondasunaren prezioa igotzerakoan, ekoizleek ondasun unitate gehiago eskaini nahiko dute. Hau da, ekoizleen jokabidea zentzuzkoa izanik, eskaintzaren kurba goranzkoa da (malda positiboa).

- Eskaintza aldatzeko eragileak


Ekoizleek eskaini nahi duten ondasun baten kopurua aldatuko da baldin eta hurrengoa aldatzen bada:



- Eskaintza-kurbaren barruko mugimendua

Prezioa (P) igotzen denean (adib. 1etik 2ra) ekoizleek kantitate (Q) gehiago eskatuko dute (15tik 20 unitatera), beraz, eskaintza kurbaren barruan mugimendu bat dago A puntutik B puntura.


- Interpretazioa: Ondasunaren kantitateak gora egiten du bere prezioa igotzen denean, beste guztia finko mantenduz (ceteris paribus).



- Eskaintza-kurbaren lekualdatzea

Prezioa ez den eragile bat aldatzen denean (ekoizpen-kostuak, teknologia, ekoizten dituzten beste ondasunen prezioak, etorkizunerako aurreikuspenak eta lehiakide kopurua), eskari-kurba lekualdatzen da planoan bere posizioa aldatuz.

- Interpretazioa: Eskaintzaren kurban eskubira lekualdatzen da ekoizleen eskaintza igo egin delako edozein preziotan X eragilearen ondorioz.



- Eskaintza-kurba lekualdatzen duten faktoreak

1. Input-en (edo ekoizpen-faktoreen) prezioak:

- Input bat beste ondasun edo zerbitzu bat ekoizteko erabiltzen den ondasun edo zerbitzua da. Adibidez: Erregaia aire konpainien input bat da.
- Input-ak, output-ak bezala, prezio bat daukate.
- Input-aren prezioa igotzen bada → ekoizpen-kostuak igo → prezio berean eskaintako kantitatea murriztu (eta alderantziz).

2. Teknologia:

- Teknologia aurrerapena → produktibitatea igo → ekoiztutako kantitatea prezio bakoitzeko igo → prezio berean eskaintako kantitatea igo mozkinak handitzeko (eta alderantziz).

3. Enpresa/Ekoizleen kopurua merkatuan:

- Gogoratu: Merkatuaren eskaintza-kurba merkatuan dauden ekoizle bakoitzaren eskaintzen gehiketa da.
- Beraz, enpresen kopurua igotzerakoan ekoizpena igoko da merkatuaren eskaintza igoz (eta alderantziz).

4. Aurreikuspenak:

- Prezioi buruzko aurreikuspenak: Etorkizunean ekoizten duten ondasunaren prezioa igotzea espero bada ekoizleek gaur egungo eskaintza murriztuko dute (eta alderantziz).
- Merkatuari buruzko aurreikuspenak: Etorkizunerako aurreikuspen txarrak badira (adib: klimaren ondorioz, krisialdia) ekoizpena / eskaintza murriztuko da (eta alderantziz).

5. Beste ondasunen prezioak:

- Enpresa batek ondasun bat baino gehiago ekoizten baditu, horietako ondasun batetik eskaintzeko prest dagoen kantitatea ekoizten dituen besteen prezioen arabera izango da:
 - *Ondasun osagarriak* badira (adib: kartutxoak, inprimagailuak) ekoizpenean ondasun osagarria den prezioa igotzen bada, ekoizleek jatorrizko ondasunaren eskaintza igoko dute (eta alderantziz).
 - *Ondasun ordezkagarriak* badira (adib: margarina, gurina) ekoizpenean ondasun ordezkagarria den prezioa igotzen bada, ekoizleek jatorrizko ondasunaren eskaintza murriztuko dute (eta alderantziz).

- Zein aldetara lekualdatzen da eskaintza-kurba?

Eskaintako kantitatea ↑ (eskaintza-kurba →)	Eskaintako kantitatea ↓ (eskaintza-kurba ←)
Input baten prezioa murrizten denean	Input baten prezioa igotzen denean
Teknologia aurrerapen bat dagoenean	Teknologia atzerapen bat dagoenean
Ekoizleen kopurua merkatuan igotzerakoan	Ekoizleen kopurua merkatuan jaisterakoan
Etorkizunean ondasunaren prezioa ↓ espero denean	Etorkizunean ondasunaren prezioa ↑ espero denean
Etorkizunerako aurreikuspenak merkatu horretan onak direnean	Etorkizunerako aurreikuspenak merkatu horretan txarrak direnean
Ekoizpenean ondasun osagarria den prezioa ↑	Ekoizpenean ondasun osagarria den prezioa ↓
Ekoizpenean ondasun ordezk. den prezioa ↓	Ekoizpenean ondasun ordezk. den prezioa ↑

2.6.ARIKETA

Adierazi zer motatako mugimendua (gora edo behera) edo lekualdaketa (ezkerra edo eskuina) duen autoen eskaintza kurbak, aldaketa hauetakoren bat gertatuz gero. Arrazoitu zure erantzuna eta egin dagokion irudikapen grafikoa:

1. *Ekoizpen-prozesuan aurrerapen teknologikoa.* → Lekualdaketa eskumara
2. *Autogintzan ordainduriko soldaten igoera.* → Lekualdaketa ezkerrera. Ekoizpen kostuek gora egin dutelako.
3. *Autoen prezioen jaitsiera.* → Beheranzko mugimendua. Autoen prezioen jaitsiera dela eta ekoizleak kantitate gutxiago ekoizteko prest egongo dira.
4. *Autoen prezioak hurrengo lauhilekoan jaitsiko diren aurreikuspena.* → Lekualdaketa eskumara. Eskaintza igoko da.
5. *Krisi ekonomikoa jarraituko duen aurreikuspena.* → Lekualdaketa ezkerrera. Eskaintza murriztuko da.


2.7.ARIKETA

Adierazi zer motatako mugimendua (gora edo behera) edo lekualdaketa (ezkerra edo eskuina) duen sagarren eskaintza kurbak, aldaketa hauetakoren bat gertatuz gero. Arrazoitu zure erantzuna eta egin dagokion irudikapen grafikoa:

- *Ekoizten dituen beste fruten prezioa garestitzen bada.* → Lekualdaketa ezkerrera.
- *Sagarren prezioa igotzen bada.* → Goranzko mugimendua. Prezioa igotzen denez Ekoizleak sagar gehiago ekoizteko prest egongo dira.
- *Elurte handien ondorioz, sagarren uzta oso urria bada.* → Lekualdaketa ezkerrera.
- *Uzta-makinak garestitzen badira.* → Lekualdaketa ezkerrera.


- Merkatuaren oreka

Oreka-puntua (E): Eskari (D) eta eskaintza (S) kurbek elkar gurutzatzen diren puntua: kontsumitzaileak nahiz ekoizleak gustura izango dira prezioarekin (orekako prezioa, P_E) eta trukaturako kantitatearekin (orekako kantitatea, Q_E).



- Eskari eta eskaintzaren arteko desorekak: prezioaren erreakzioa

- Prezioa orekako prezioa baino altuagoa bada, gehiegizko eskaintza izango dugu: eskaintako kantitatea eskatutako kantitatea baino altuagoa da.
- Prezioa orekako prezioa baino baxuagoa bada, gehiegizko eskaria izango dugu: eskatutako kantitatea eskaintako kantitatea baino altuagoa da.




- Eskari eta eskaintzaren arteko desorekak: zer gertatzen da eskariaren kurba eskuinera lekualdatzen denean?

Eskariaren kurba eskuinera lekualdatzen denean D1 -tik a D2 -ra:

Oreka berri bat lortzen da: E1 -tik E2 -ra.

- Orekako prezioa igotzen da: PE1 -tik PE2 -ra.
- Orekako kantitatea igotzen da: QE1 -tik QE2 -ra.



- Eskari eta eskaintzaren arteko desorekak: Zer gertatzen da eskariaren kurba ezkerrean lekualdatzen denean?

Eskariaren kurba ezkerrean lekualdatzen denean D1-tik D2-ra:

Oreka berri bat lortzen da: E1-tik E2-ra.


- Orekako prezioa jaisten da: PE1 -tik PE2-ra.
- Orekako kantitatea jaisten da: QE1 -tik QE2-ra.

- Eskari eta eskaintzaren arteko desorekak: Zer gertatzen da eskaintzaren kurba eskuinera lekualdatzen denean?

Eskaintzaren kurba eskuinera lekualdatzen denean S1 -tik S2 -ra:

Oreka berri bat lortzen da: E1 -tik E2 -ra.

- Orekako prezioa jaisten da: PE1 -tik PE2 -ra.
- Orekako kantitatea igotzen da: QE1 -tik QE2 -ra.



- Eskari eta eskaintzaren arteko desorekak: Zer gertatzen da eskaintzaren kurba ezkerrean lekualdatzen denean?

Eskaintzaren kurba ezkerrean lekualdatzen denean S1 -tik S2 -ra:


Oreka berri bat lortzen da: E1 -tik E2 -ra.

- Orekako prezioa igotzen da: PE1 -tik PE2 -ra.

- Orekako kantitatea jaisten da: QE1 -tik QE2 -ra.
- Eskari eta eskaintza kurben aldirerako lekualdatzeak

1. Eskaria igotzen denean (eskari-kurba eskuinera lekualdatu) eta eskaintza jaitsi (eskaintza-kurba ezkerreko lekualdatu), orekako prezioa igotzen da, baina orekako kantitatean ematen den aldaketa anbigua da (kurben lekualdatzen arabera):

- Eskariaren igoera handia > Eskaintzaren jaitsiera txikia → orekako bai prezioa eta kantitatea igotzen dira.
- Eskaintzaren jaitsiera handia > Eskariaren igoera txikia → orekako prezioa igotzen da baina orekako kantitatea jaitsi.



2. Eskaria jaisten denean (eskari-kurba ezkerreko) eta eskaintza igo (eskaintza-kurba eskuinera), orekako prezioa jaisten da, baina orekako kantitatean ematen den aldaketa anbigua da (kurben lekualdatzen arabera):

- Eskaintzaren igoera handia > Eskariaren jaitsiera txikia → orekako prezioa jaisten da baina orekako kantitatea igotzen da.
- Eskariaren jaitsiera handia > Eskaintzaren igoera txikia → orekako bai prezioa eta kantitatea jaisten dira.

3. Eskaria eta eskaintza igotzen direnean (bi kurbak eskuinera), orekako kantitatea igotzen da, baina orekako prezioan ematen den aldaketa anbigua da (kurben lekualdatzen arabera):

- Eskari-kurba eskaintza-kurba baino gehiago eskuinera lekualdatzen bada → orekako bai prezio eta kantitatea igotzen dira.
- Eskaintza-kurba eskari-kurba baino gehiago eskuinera lekualdatzen bada → orekako prezioa jaitsiko da eta orekako kantitatea igo.

4. Eskaria eta eskaintza jaisten direnean (bi kurbak ezkerreko), orekako kantitatea jaisten da baina orekako prezioan ematen den aldaketa anbigua da (kurben lekualdatzen arabera):

- Eskari-kurba eskaintza-kurba baino gehiago ezkerreko lekualdatzen bada → orekako bai prezio eta kantitatea jaitsiko dira.

- Eskaintza-kurba eskari-kurba baino gehiago ezkerrera lekualdatzen bada→ orekako prezioa igoko da eta orekako kantitatea jaitsi.

2.8.ARIKETA

Hurrengo merkatuentzako honako hau zehaztu behar duzu: eskari edo/eta eskaintza kurbaren lekualdaketa izan bada; lekualdaketa norabidea (eskuina edo ezkerra); lekualdaketa zergatia (faktoreak); zer gertatzen da orekako prezio eta kantitatearekin; eta dagokion irudikapen grafikoa.

1. DVD erreproduzitaileen merkatua

“DVD erreproduzitaileen prezioak etorkizunean behera egingo duten aurreikuspena dela eta, elektronikako dendek orain DVD erreproduzitaile bolumen bat jarri dute salgai”

Eskaintza kurba ari gara aztertzen. Lekualdaketa eskuinera. Prezioan aurreikuspena da arrazoia, etorkizunean prezioak behera egingo duela orain gehiago saltzeko prest egongo dira. Orekako kantitatea altuagoa da, orekako prezioa, berriz, baxuagoa. Beraz, ondorioztatu dezakegu gehiegizko eskaintza bat zegoela.

2. TELEPIZZA pizzen merkatua

“PIZZU HUT pizzen prezioak behera egin zuenez, jendea TELEPIZZA pizza gutxiago hasi zen kontsumitzen” **PAPER BATEAN EGINA**

3. Plasma telebisten merkatua

“Teknika berri baten sarrerak denbora laburragoan plasma telebista ekoiztea ahalbidetu zuen. Ondorioz, plasma telebista jarri ziren salgai” **PAPER BATEAN EGINA**

4. Inprimatzaileen merkatua

“Tinta-kartutxoaren prezioak gora egin zuenez...:

- Kontsumitzaileek inprimatzaile erosi zituzten
- Inprimatzaile eta tinta-kartutxoak batera ekoizten dituzten enpresek inprimatzaile jarri zituzten salgai”

Oharra: Eskaintzaren igoera eskariaren jaitsiera baino handiagoa da. **PAPER BATEAN EGINA**

5. Jertseen merkatua

“Artilearen prezioak gora egin zuenez, ekoizleek jertseen bolumen bat jarri zuten salgai arropa dendetan” **PAPER BATEAN EGINA**

6. Arrosen merkatua

“San Valentín eguna dela eta jendeak arrosa erosten ditu nahiz eta prezioa altuagoa izan” **PAPER BATEAN EGINA**

7. Zapaten merkatua

“kontsumitzaileak zapata erosiko dituzte oraingo Gabonetan urtarrileko beherapenetara itxaroten baitaude” **PAPER BATEAN EGINA**

Prezioan eragiteko ahalmena?

- **BAI=Lehia Inperfektuko merkatuak**

- Prezioan eragiteko ahalmena dute
 - Zenbat eta enpresa gutxiago egon merkatu horretan, prezioan eragiteko ahalmena handiagoa izango da

- **EZ=Lehia perfektuko merkatuak**

- Merkatuak eskaintza eta eskariaren arabera prezioak ezartzen ditu
- Ondasun homogeneoak
- Enpresa bakar batek ez du prezioan eragiteko ahalmena
 - Enpresa guztiak prezio onartzaileak dira=merkatuak ezarritako prezioa onartu
- Enpresa guztiak baldintza berdinetan ibiltzen dira
- Adibidez: Barazkien merkatua...

3. GAIA: MERKATUAREN AKATSAK ETA ESTATUAREN ESKU-HARTZEA EKONOMIAN

Eskaria → Kontsumitzaileak/erosleak

Eskaintza → Ekoizleak/saltzaileak

Input → Ekoizpen faktorea

Output → Produktu bukatua (ekoizpena)

- **MERKATUAREN AKATSAK**

- **Ziklo ekonomikoaren ezegonkortasuna**

- Ziklo ekonomikoak ekonomia-jardueran izaten diren gorabeherak dira, txandaka atzeraldiak eta hedaldiak dakartzatenak
- Ekonomiak, funtsean, portaera ziklikoa du: hedaldi baten atzetik, atzeraldia dator.
- Merkatu ekonomien eta ekonomia mistoen desabantaila
- Merkatuaren hutsegiterik larriena
- Ekonomiaren hedaldian, jarduerak eta enpleguak nabarmen egiten du gora; baina haren atzetik, atzeraldi edo krisialdia dator, eta eskura dauden ekoizpen-faktoreetako askok (langileak, makinak, kapitalak...) ez dute zereginik.
- Bi jarrera posible:
 - Ez esku hartzea → neoliberalak (Adam Smithen oinardekoak)
 - Esku hartzea → neokeynesiarrak (J. M. Keynes oinardekoak)

- Ziklo ekonomikoen gorabeherak arintzeko tresnak

- *Politika ekonomikoa:*

- Zerga-politika:

- Hedakorra atzeraldietan: errenta erabilgarriaren igoera (GP↑ edota T↓)
- Murriztaile hazkunde epealdietan: errenta erabilgarriaren jaitsiera (GP↓ edota T↑)

- Diru-politika:

- Hedakorra diru gehiago jartzen denean zirkulazioan
- Murriztailea diru gutxiago jartzen denean zirkulazioan

- *Legez finkatutako prezioak (prezioen kontrola):*

- Gehieneko prezioak: Saltzaileek ondasun edo zerbitzu batengatik kobratu dezaketen gehieneko prezioa da.
- Gutxieneko prezioak: Erosleek ondasun edo zerbitzu batengatik ordaindu behar duten gutxieneko prezioa da.

- Ondasun publikoak egotea

Merkatuak, berez, gizarteak eskatzen dituen ondasun eta zerbitzu guztiak eman beharko lituzke: baina errealitatea ez da hori....

Ondasun mota:

- Bere kontsumoa **baztergarria da?**
Hau da, ekolizeak saihestu dezake baten batek kontsumitu ahal izatea (kobratzen)?
- Bere kontsumoa **lehiakidea da?**
Hau da, posible da pertsona bat baino gehiagok kontsumitzea ondasun unitate bera?

	Lehiakidea kontsumoan	EZ lehiakidea kontsumoan
Baztergarria	ONDASUN PRIBATUAK Elikagaiak Arropak Etxebizitza	ORDAINDU BEHARREKO ONDASUNA EDO ARTIFIZIALKI URRIAK TVn ordaindu beharreko filmak Programa informatikoak Patenteak
EZ baztergarria	BALIABIDE KOMUNAK Ur garbia Biodibertsitatea	ONDASUN PUBLIKOAK Defentsa nazionala Itsasargia Kaleko argia (farolak) Saneamendu zerbitzuak

↓

ONDASUN PUBLIKO GARBIA EZ BAZTERGARRIA ETA EZ LEHIAKIDEA DA
--

ONDASUN PUBLIKO EZ-GARBIA: EZ
BAZTERGARRIA BAINA LEHIA IZAN DAITEKE
ERABILTZeko
Erreplid kongestionatuak
Ikasketa-bekak

Ondasun publikoak definitzen duena ez da nork eskaintzen duen baizik eta **nork gozaten duen eta nola**

14/10/2020 A. de Ayala

- Zergatik ekimen pribatuak ez du ondasun publikorik hornitzen?

1. Ondasun ez baztergarriak direlako kontsumitzaile parasitoen arazoa ("free rider") → enpresa pribatuek ez dute nahi ondasun mota hauek eskaini.

- Kontsumitzaile parasitoak? Zenbait pertsona ez daude prest ondasun edo zerbitzu kolektiboen truke ordaintzeko, nahiago baitute beste batzuek kontsumitu edo erosteko zain egon, ondoren doan erabiltzeko.

- Adibidea: Kaleko argia

- Arazoa: Jende guztia besteek erosteko zain egongo balitz, haren kontura erabiltzeko, ezinezkoa izango litzateke zerbitzu kolektibo horiek ematea.
 - Konponbidea: Estatu eskaini horrelako zerbitzuak, bata dela bestea dela, kontsumitzaileek ez dituztelako nahi beren poltsikotik ordaindu.
2. Kontsumoan ondasun ez-lehiakideak direlako ez litzateke eraginkorra izango euren kontsumoagatik kobratzea
- Ondasunak kontsumoan ez lehiakideak direnean, dohainekoak izan beharko lirateke eta beraz, edozein prezio positiboak kontsumo ez eraginkor baxu bat ekarriko zuen.
 - Arazoa: Ekoizleek ezin izango dutenez prezio positibo bat kobratu ondasun hauengatik, ez zituzten lortuko etekinik hauek hornitzen eta beraz ez dituzte inolako pizgarririk hauek eskaintzeko.
 - Konponbidea: Estatuak ondasun mota hauek eskaini
 - Tresnak
 - Ekimen pribatuak gizarteak eskatzen dituenak baino ondasun eta zerbitzu gutxiago eskaintzen baditu, Estatuak ematen ditu ondasun eta zerbitzu horiek.
 - Nola hornitzen ditu?
 - Berak ekoizita (justizia, polizia, armada, hezkuntza...)
 - Enpresa pribatuei erosita biztanleen artean doan banatzeko (argiteria, errepideak, zubiak...)
 - Zati batean diruz lagunduz ondasun horien erosketa (osasuna, etxebizitza sozialak...)
 - Ondasun eta zerbitzu publikoak → Estatuko aurrekontu orokorretan (aurreikuspenak + finantza iturriak)

3.1. ARIKETA

Argudiatu zein motatako ondasuna den bakoitza baztergarria eta kontsumoan lehiakidea den (edo ez) arrazoituz.

- a) Espazio publikoa bat, esate baterako, parke bat → Ez da baztergarria
- b) Txorizo bokata → Baztergarria+lehiakidea = pribatua
- c) Izozki bat → Baztergarria+lehiakidea = pribatua
- d) Web orrialde baten informazio pasahitza batekin babestuta dagoena → Baztergarria + ez da lehiakidea = ordaindu beharreko ondasuna edo artifizialki urria den ondasuna
- e) Telebista publikoan iragarri den informazioa hurrengo elurteari buruz → Ez da baztergarria

- Kanpo-eraginak

Kanpo-eraginak agertzen dira eragile baten ekoizpen edo kontsumo erabakiek hirugarren batengan eragina badute, eta eragileak kalte (edo onura) horiek ordaintzen (edo kobratzen) ez baditu.

❖ *Kanpo-eragin negatiboak:*

Eragile pribatu baten erabakiak/ekintzak hirugarren batentzat kaltegarria bada (ongizatearen jaitsiera eta banakako eta gizarte kostuak ekartzen baditu), eta eragileak kalte horiek kontutan hartzen (ordaintzen) ez dituenean.

- Adibideak:

- Kaltearen eragilea: ekoizlea
 - Kutsatzen duen enpresa batek sortu dezaken kostua/kalte gizartean: ?
 - Diskoteka baten jabeak sortu dezaken kostua/kalte auzokideen artean: ?
- Kaltearen eragilea: kontsumitzailea
 - Erretzaile batek leku publiko itxi batean erretzerakoan sortu dezaken kostua/kalte alboan dauden pertsonetan: ?
 - Pertsona batek auto pribatua asko erabiliz sortu dezaken kalte/kostua gizartean: ?

❖ *Kanpo-eragin positiboak:*

Eragile pribatu baten erabakiak/ekintzak hirugarren batentzat onuragarria bada (ongizatearen igoera eta banakako eta gizarte irabaziaz ekartzen baditu), eta eragileak kalte horiek kontutan hartzen (kobratzen) ez dituenean.

- Adibideak:

- Kaltearen eragilea: ekoizlea
 - Enpresa batek bere langileak prestatzen dituenean (kurtsoak eskaini...) sortu dezaken onura/irabazia gizartean: ?
 - Autoentzako motor ez kutsagarriak garatzen dituen enpresak sortu dezaken onura/irabazia gizartean: ?
- Kaltearen eragilea: kontsumitzailea
 - Txertoa hartzen duen pertsonak sortu dezaken onura/irabazia berarekin daudenentzat: ?
 - Euskara ikastea erabaki duen ikasleak sortu dezaken onura/irabazia berarekin mintzatzen dutenei: ?

Beraz, kanpo-eraginen arazoa? Gizarte kostu eta irabazkiak ez dira kontutan hartzen eragileek (ekoizleak zein kontsumitzaileak) erabakiak hartzen dituztenean.

- Tresnak

1. *Ekimen pribatua:*

Coasen Teoremaren arabera, kasu batzuetan sektore pribatuak kanpo-eraginen arazoa bere kabuz konpondu ahal du. Noiz?

- Transakzio kostuak (akordioak negoziatzeko kostuak) ez badira oso altuak, eragileak akordio batera ailegatu ahal dira kanpo-eraginak kontuan izateko (hau da, eragileek sortu ahal dituzten kostuak edo irabazkiak kontuan hartzen dituztenean)
- Baina normalean transakzio kostuak altuek (eragileen arteko komunikazioa, atzerapenak, hitzarmen legalak gauzatzea...) akordioak negoziatzea eta lortzea saihesten dute.

2. *Estuaren esku-hartzea bi tresnen bitartez:*

- Erregulazioa: kanpo-eragin negatiboak (kaltegarriak) ekartzen dituzten jarduerak debekatuz edo mugatuz, eta kanpo-eragin positiboak (onuragarriak) ekartzen dituzten jarduerak sustatuz. Adibidez:
 - Taberna eta diskotekei gaueko ordu jakin baten ostean ixtera behartu
 - Hiriguneetatik gertu dauden jarduera kutsatzaileak edo arriskutsuak debekatu
- Merkatuari loturiko neurriak: Horrelako neurriak pizgarrietan oinarritzen dira, eta eragileak kanpo-eragina kontutan hartzea bultzatzen dute.
 - Kanpo-eragin negatiboen kasuan: kanpo kostua sortzen dutenen gaineko zerga (adib: CO2 emisioen gaineko zerga)
 - Kanpo-eragin positiboen kasuan: kanpo irabazia sortzen dutenei diru-laguntzak (Adib: langileei prestatzen dituzten enpresentzako laguntzak)

- Lehia ez perfektua

- Lehiarik ezak edo lehia ez-perfektuak esan nahi du enpresa batek edo batek baino gehiagok prezioan eragiteko aukera dutela, gehiago edo gutxiago.
- Zenbat eta enpresa gutxiago egon, orduan eta aukera handiagoa izango dute prezioan eragiteko.
- Lehia-inperfektuko merkatuak: Monopolioa, oligopolioa eta lehia-monopolista.
- Estatuaren esku-hartzea lehia askearen defentsan

1. Lehiaren Batzorde Nazionala (Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia) → merkatuak egoki funtziona dezan.

Eginkizunak:

- Lehiaren defentsaren alorreko prozedura guztiak adierazi eta horiei buruzko ebazpenak ematea.
- Merkatuko lehiari buruzko arbitrajea, kontsultak, eta lehia sustatzeko jarduerak.
- Bere jardueren gardentasuna eta gizartearekiko duen erantzukizuna argi eta garbi erakustea.
- Merkatuetako lehia-egoerari buruzko txostenak egitea, bai eta diru-laguntza publikoak ematea ere.

Debekatuta dago akordioak eta hitzarmenak egitea prezioak eta beste merkataritza-baldintza batzuk ezartzeko, ekoizpena mugatzeko edo merkatua elkarren artea banatzeko.

2. Jabetza publikoa → Monopolista pribatu batek industria jakin bat kontrolatu beharrean, gobernuak agentzia publiko bat sortzen du ondasuna edo zerbitzua hornitzeko eta kontsumitzaileen interesak babesteko (Adib. Telefonica orain dela urte batzuk Espainian)
3. Prezioen kontrola → Estatuak monopolioek jarri ahal duten prezioak mugatzen du: gutxienezko edo gehienezko prezio bat ezartzen.
4. Antitrust politikak → Gobernuak egiten dituzten esfortzuak dira merkatu oligopolista bat monopolio batean ez bihurtzeko edo monopolio bat bazela ez jarduteko.

- Errentaren banaketa desberdina

- Merkatuak errenta birbanatzen du pertsonen artean ekoizpen-faktoreen produktibitatearen arabera: “bakoitzari bere esfortzuaren arabera”. Adibidez, “produktiboak ez direnek” (erretiratuak, langabetuak...) ez dute errentarik.
 - Lan faktorea: Hezkuntza eta prestakuntza mailaren eta lan egiteko erabilgarritasunaren arabera da
 - Kapitala faktorea: Herentziek, ezkontza erregimenek eta aurrezkiek zehazten dute.
- Zein banaketa da hoberena? Kontu politikoa. Eraginkortasun eta ekitatearen arteko orekaren bilketa.

- Tresna: Aurrekontu Publikoa

- Estatuaren kontabilitatea da (kontuen bilduma). Aurrekontu horietan, xehetasunez adierazten dira Ogasun Publikoak urte jakin batean egingo dituen gastuak eta aurreikusitako diru-sarrerak.
- Arauzko aurreikuspena da: aurrekontu-proposamenak gobernuak behartzen du bai politikoki eta bai legalki.
- Aurrekontuek bat etorri behar dute Estatuaren ekonomia-planarekin, ekonomiak oro har izango duen bilakaerari buruzko aurreikuspenak eta ekonomia-helburuak adierazten dituen planarekin.

- Aurrekontua formalki orekatua da: diru-sarrerekin gastuak finantzatzen dira.

❖ *Aurrekontu zikloaren faseak*

Elaborazioa	Botere betearazlea (Gobernua)
Onespena	Botere Legegilea (Parlamentua)
Gauzatzea	Botere betearazlea (Gobernua)
Kontrola	Botere Legegileak botere betearazlearen jarduketaren gainean

❖ *Sarrera eta gastu motak*

Sarrerak	Gastuak	
Gizarte kotizazioak	Arruntak	} Gastu erreala
Tributuak	<ul style="list-style-type: none"> • Ondasunak eta zerbitzuak erostea • Funtzionarioei egindako ordainketak 	
<ul style="list-style-type: none"> • Zergak • Tasak 	Inbertsioa (azpiegiturak)	
Beste sarrera batzuk	Transferentziak eta diru-laguntzak	
<ul style="list-style-type: none"> • Kontu korronteko transferentziak • Ondareagatiko sarrerak • Inbertsio-ondasunen besterentzea • Kapital-transferentziak 		

↓ Jatorriaren arabera
↓ Aplikazioa edo helburuaren arabera

➤ Diru-sarrera publikoak

1. Gizarte-kotizazioak:

Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileek egindako ekarpenak dira, beharra sortzen zaienean haiek eta bere familiek laguntza izan dezaten: gaixotuz gero, ezgaitasunen bat izanez gero, erretiroa hartuz gero...

2. Tributuak: Iturri nagusia dira.

Tributuak sarrera publikoak dira, hau da, foru arauak tributatzeko betebeharrarekin lotzen duen izatezko egoera gertatzeagatik herri Administrazio batek exijitzen dituen diru prestazioak, gastu publikoari aurre egiteko beharrezkoak diren sarrerak lortzea funtsezko helburu dutenak.

Gainera, tributuak politika ekonomiko orokorraren tresna gisa ere erabili daitezke gizartearen egonkortasuna eta aurrerapena lortzeko eta errenta hobeto banatzeko.

- *Zergak* (nagusi)

Administrazio publikoek behartuta egin beharreko ordainketak dira, zergapekoek ordainetan ezer jasotzen ez dutela. Bi mota:

- Zuzeneko zergak: aintzat hartzen dute zergapeko pertsonaren edo enpresaren ekonomia ahalmena. Zerga progresiboak dira: zerga-zama enpresaren edo pertsonaren ahalmen ekonomikoa.
- Zeharkako zergak: ez dute kontutan hartzen eragilearen ekonomia-ahalmena. Zerga erregresiboak

dira: zerga-zama berdina da enpresaren edo pertsonaren ahalmen ekonomikoa edozein delarik.

Zergak jaitsi edo igo egingo dira Estatuaren zerga-politikaren arabera:

- Zerga-politika hedatzailea

Zergak ↓, Gastu Publikoa ↑

- Zerga-politika murriztailea

Zergak ↑, Gastu Publikoa ↓

- *Tasak:*

Erabiltzaileak onura dakarkion zerbitzu publiko bat erabiltzeagatik edo jarduera bat egiteagatik ezartzen diren ordainketak dira (erakusketa publiko baten sarrera, unibertsitate publikoko matrikula...).

3. Beste sarrera batzuk:

- Kontu korronteko transferentziak: Beste erakunde batzuetan jatorria duten baliabideak; adibidez, Estatu Loterien eta Apustuen bidez sortutakoak.
- Ondare bidezko sarrerak: Estatuaren ondasunetan jatorria duten errentak, esate baterako, Altadis eta RENFE enpresa publikoen etekinak.
- Inbertsioen besterentzea: Estatuaren ondasunak saltzetik lortuak; adibidez, enpresa publikoak saltzetik (Telefonica, Repsol, Iberia).
- Kapital-transferentziak: Inbertsio-proiektuak finantzatzeko baliatzen dira.

3.2. ARIKETA

Saika ezazu zerga mota bakoitza zuzeneko edo zeharkakoetan eta bakoitzaren zergapekoa adierazi:

- ❖ *Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)* → Zeharkakoa. Kontsumo finala
- ❖ *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)* → Zuzena. Pertsonaren errenta
- ❖ *Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)* → Zuzena. Ondasun higiezinak
- ❖ *Ondarearen gaineko Zerga (OZ)* → Zuzena. Ondarea
- ❖ *Ondare Eskualdaketak eta Egintza Juridikoen gaineko Zerga (OEZ/EJDZ)* → Zeharkakoa. Ondare eskualdaketaren egintza juridikoak
- ❖ *Sozietateen Errenten gaineko Zerga (SZ)* → Zuzena. Sozietatearen errentak
- ❖ *Zerga Bereziak* → Zeharkakoa. Ondasun jakin baten kontsumoa, ondasun horren kontsumoa murrizteko
- ❖ *Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga (ODZ)* → Zuzena. Oinordetza edo dohaintza bat jaso izana.

➤ Gastu publikoa

1. Gastu arruntak:

Gizarteari zerbitzu publikoak ematea helburu duten gastu orokorrak dira: osasuna, hezkuntza, justizia, defentsa... Bi kategoria:

- Funtzionarioen soldatak
- Enpresa pribatuei erositako ondasunak eta zerbitzuak.

2. Inbertsio-gastuak:

Herrialdeko ekoizpen-ahalmenari eustea edo hura handitzea helburu dutenak dira. Gastu handienak azpiegiturek dakarte: errepideak, ospitaleak, aireportuak...

3. Transferentzia eta diru-laguntzak.

Estatuak zergetatik, gizarte-kotizazioetatik eta abarretik jaso eta behar handienak dituzten pertsoneri edo enpresei helarazten dizkien baliabideak.

- Transferentziak → pertsoneri ematen bazaizkie (erretiro-pentsioak, ezgaitasun-pentsioak, ikasteko bekak, langabezia-prestazioak...)
- Diru-laguntzak → enpresei ematen bazaizkie (enpresa sortzeagatik, kapital-ondasunetan inbertitzeagatik, lanpostuak sortzeagatik...)

3.3. ARIKETA

Zehaztu zer gastu motari (arrunta, inbertsioa, transferentzia, diru-laguntza) dagozkien Estatuak hartutako neurri hauek:

- *Alarguntza-pentsioak ordaintzea* → Transferentzia
- *Obra publikoak egitea* → Inbertsio-gastua
- *Osasun-materialetarako gastuak* → gastu arrunta
- *Ikasketa-bekak* → transferentzia
- *Enplegua sortzeagatiko laguntzak* → diru-laguntza
- *Funtzionarioak kontratatzea* → gastu arrunta
- *Langabezia-prestazioak* → transferentzia
- *Europar Batasunak emandako diru-laguntzen kudeaketa* → diru-laguntza
- *Produktu edo prozesu berriak ikertzeko eta garatzeko laguntzak* → diru-laguntza

❖ Aztertu beharreko bi faktoreak

1. Gastu publikoaren zenbatekoa:

- Gobernuaren helburuak zeintzuk diren adierazten du.
- Gastu publiko handia egiteak ekonomiaren hedapena dakar, eta txikia egiteak, ekonomia geldotzea:
 - *Zerga-politika hedatzailea* → Zergak jaitsi / Gastu Publikoa igo
 - *Zerga-politika murriztailea* → Zergak igo / Gastu Publikoa jaitsi

2. Aurrekontuaren saldoa:

Sarreraren eta gastuen arteko aldea.

- Aurrekontua orekatuta: sarrerak = gastuak
- Sarrerak < gastuak → defizit publikoa
- Sarrerak > gastuak → superabita

❖ Aurrekontu publikoa eta ziklo ekonomikoa

- Atzeraldia → zergen bilketa murrizten da (zergengatik diru-sarrerak murriztu) jardueraren jaitsiera dela eta + gastu publikoa handitzen da langabeziagatiko prestazioak handitzen baitira → defizit publikoa.
- Hedaldia → langabezia murriztu eta errenta eta produkzio mailak handitzen direnez, transferentzia publikoak gutxitzen dira eta zergengatik diru-sarrerak handitu → defizita murriztu edo superabita gehiagotu.

3.5. ARIKETA

Demagun A herrialdearen aurrekontu publikoak hurrengoak direla:

- **Sailkatu kontzeptu bakoitza adierazten zein gastu edo sarrera mota den.**
- **Aurrekontua orekatuta al dago? Justifika ezazu.**

Kontzeptua	Milioi euro
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)	50000
Ekintzaileei laguntzak	12000
Funtzionarioen kontratazioa	45000
Unibertsitate publikoen matrikulak	25000
Gizarte Segurantzako kotizazioak	135000
Langabeziagatiko prestazioak	35000
Ospitaleen eraikuntza	90000
Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)	32000
Erretiratuen pentsioak	130000
Estatuko Loteriak eta Apustuak	15000

SARRERAK	milioi €	GASTUAK	milioi €
PFEZa	50000	Ekintzaileei laguntzak	12000
Uni publikoen matrikulak	25000	Funtzionarioen kontratazioa	45000
Gizarte Segurantzako kotizazioak	135000	Langabeziagatiko prestazioak	35000
BEZa	32000	Ospitaleen eraikuntza	90000
		Erretiratuen pentsioak	130000
		Estatuko Loteriak + Apustuak	15000

Saldoa=Sarrerak-gastuak= 242.000-327.000= - 85.000 milioi € → Defizita dago

DEFIZITA FINANTZIATZEKO ERAK

1. *Zerga-politika murriztatzalea:* Zergak igo edo gastua murriztu.
2. *Zor publikoa jaulkitzea:* Bonoak saldu.
3. *Diru-politika hedatzailea:* Europako banku zentralak diru gehiago injektatzea. Bere ondorio txarra inflazioa izan daiteke, hau da, prezioen gorakada.

4. GAIA: INGURUNE EKONOMIKOAREN ANALISIA: ADIERAZLE NAGUSIAK ETA EKONOMIA-POLITIKAK

- JARDUERA-EKONOMIKOAREN NEURKETA


- Oinarrizko kontzeptuak

- **Mikroekonomia:** Enpresek edo etxeko ekonomia indibidualek euren erabakiak nola hartzen dituzten ikertzen du.
 - Laranjen eskaria
 - Aneren eskari indibiduala
 - Praka baten ekoizpen-kostua
 - Enpresa baten batzbesteko ekoizpena
- **Makroekonomia:** Ekonomiak oro har zer-nolako portaera duen aztertzen du. Bere helburua zera da, etxeko ekonomia, enpresa edo merkatu askoren gainean eragina daukaten aldaketa ekonomikoak azaltzea.
 - Ekoizpen nazionala
 - Enplegua / Langabezia
 - Inflazioa
 - Hazkundea

Makroekonomiak honelako galderei erantzuten die:

- Zergatik da batezbesteko errenta handia herrialde batzuetan eta, ordea, beste batzuetan oso baxua?
- Nola handitu dezake herrialde batek bere ekonomia-hazkundearen tasa?
- Zergatik igotzen dira prezioak batzuetan oso modu azkarrean eta, ordea, beste garai batzuetan zergatik dira hain egonkorak?
- Zergatik handitzen dira enplegua eta produkzioa garai batzuetan eta beste batzuetan uzkurto? Eta zer egin daiteke langabezia murrizteko?

- **Makroekonomiaren helburuak, adierazleak eta politika ekonomikoa**



- **Aztertuko dugun helburua (Ekoizpena/hazkundea) eta Aldagai makroekonomikoa (BPG)**

- **Barne Produktu Gordina (BPG):** Herrialde baten mugen barruan denbora-aldi batean (eskuarki, urtebete izan ohi da) ekoizten diren

azken ondasun eta zerbitzuen diru-balioa da, ekoizten duten pertsonen naziotasuna edozein dela ere.

- Ezaugarriak:

- Moneta bat erabiltzen da neurtzeko
- Aitortzen diren jarduerak soilik izaten ditu kontuan
- Azken ondasunen balioak soilik adierazten ditu
- Herrialde bateko mugen barruan ekoizten denaren balioa neurtzen du
- Aldi batean ekoizitakoa neurtzen du

❖ *BPG nominala*

BPG nominala herrialde batean urtebete ekoizten diren azken ondasun eta zerbitzuen diru-balioa da, dagokion urtean azken ondasun eta zerbitzu horiek zuten prezioa kontuan harturik.

- BPG nominala eguneko prezioetan adierazten da.
- Orain arte aztertu dugu BPG, merkatu-prezioen arabera zein faktore-kostuen arabera, BPG nominala da.

Nola kalkulatu da? Azken ondasun eta zerbitzuen kantitatea bider dagokion urtean duten prezioa eginda kalkulatu da:

$$BPG_{\text{nominala } J} = \sum_{i=1}^{i=n} q_{i,j} \cdot P_{i,j}$$

4.2. ARIKETA

Demagun hurrengo ekonomiak 3 ondasun baino ez dituela ekoizten. Kalkula ezazu BPG nominala urte bakoitzerako eta interpretatu ezazu zure erantzuna:

Urtea	Ondasuna 1		Ondasuna 2		Ondasuna 3	
	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €
2017	2.000	0,25	1.000	0,50	500	1
2018	2.200	0,30	1.200	0,60	550	2
2019	2.300	0,35	1.300	0,80	600	3

- 2017: 1500 € izan da 2017ko BPGna
- 2018: 2480 € izan da 2018ko BPGna
- 2019: 3645 € izan da 2019ko BPGna

Ekonomia hau haziz doa. Izan ere, urtez urte bere BPGnak hazkunde nabaria izan du.

❖ *BPG nominala eta BPG erreal*

BPG nominala = Kantitatea (q) x Prezioa (P)

Beraz, BPG nominala hiru arrazoiengatik hazi ahal da urte batetik bestera:

- Prezioak igo direlako
- Ekoitzitako kantitatea igo delako
- Biak igo direlako

Baina BPGren hazkundera prezioen igoeraren (inflazioa) ondorioz eman bada...

- Hiritarren aberastasuna igo al da?
- Euren erosteko ahalmena hobetu al da?

BPG nominala adierazle ona izango da herrialde batek izan duen hazkundera erreala isladatzeko?

BPG nominala ekonomia baten benetako hazkundera gehiegi baloratu ahal du

Horregatik, BPG erreala kalkulatu behar dugu → prezioen aldaketen eragina kentzen du

❖ *BPG erreala*

BPG erreala herrialde batean urtebetean ekoizten diren azken ondasun eta zerbitzuen diru-balioa da, urte jakin bateko prezioak erreferentzia moduan harturik (hau da, prezioak erreferentzia urte horretako maila berdinean mantenduko baziren bezala).

BPG erreala prezio konstanteetan adierazten da (hau da, erreferentzia urteko prezioetan).

Horrela, BPG errealaren kalkulua erreferentzia urtea zein den informazioarekin aurkezten da.

Herrialde bateko BPG erreala hazi egin dela jakingo dugu ekoitzitako kantitatea igo egin delako (q), prezioen igoeraren eragina kentzen baitu.

Nola kalkulatu da? Urte jakin batzuetako azken ondasun eta zerbitzuen kantitatea erreferentzia moduan erabiltzen den urteko prezioez biderkatzen da:

$$BPG_{\text{erreala } j} = \sum_{i=1}^{i=n} q_{i,j} \cdot P_{\text{erref. } j}$$

4.3. ARIKETA

Hurrengo ekonomiarako kalkulatu:

Urtea	Ondasuna 1		Ondasuna 2		Ondasuna 3	
	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €
2017	2.000	0,25	1.000	0,50	500	1
2018	2.200	0,30	1.200	0,60	550	2
2019	2.300	0,35	1.300	0,80	600	3

a) Urte bakoitzeko BPG errealak 2017. urteko prezioetan (erreferentzia urtea) eta interpreta ezazu zure erantzuna.

- 2017: 1500€ izan da 2017ko BPG_{ea}
- 2018: 1700€ izan da 2018ko BPG_{ea} da 2017a erreferentzia urte hartuta.
- 2019: 1825€ izan da 2019ko BPG_{ea} da 2017a erreferentzia urte hartuta.

Urteak pasa ahala BPG_{ea} igoz doa ekoizitako kopurua delako.

b) Urte bakoitzean zein da altuagoa: BPG nominala edo BPG errealak? Zergatik?

- 2017: Berdina → Erreferentzia urtea delako.
- 2018: Nominala → Prezioaren inflazioa dela eta.
- 2019: Nominala → Prezioaren inflazioa dela eta.

❖ Hazkunde-tasa

Ekonomian hazkunde-tasa BPG (nominala zein errealak) epealdi jakin batzuetan izan duen hazkundera (edo murrizketa) aztertzeko erabiltzen da.

Nola kalkulatu da?

$$t_j = \left(\frac{\text{BPG}_j - \text{BPG}_{j-1}}{\text{BPG}_{j-1}} \right) \cdot 100$$

*Gogoratu: Tasa bat denez, emaitza ehuneko (%) bat izan behar da.

4.4. ARIKETA

Ekonomia berdinerako:

Urtea	Ondasuna 1		Ondasuna 2		Ondasuna 3	
	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €
2017	2.000	0,25	1.000	0,50	500	1
2018	2.200	0,30	1.200	0,60	550	2
2019	2.300	0,35	1.300	0,80	600	3

❖ Kalkula itzazu BPG nominalaren hazkunde-tasak 2017. urtetik 2018ra, eta 2018. urtetik 2019ra. Interpreta ezazu zure erantzuna.

- 2017-2018: %65,33
- 2018-2019: %46,97

Ekonomia hazkundera egon da prezioak eta kopurua igo direlako.

❖ **Kalkula itzazu BPG errearen hazkunde-tasak 2017. urtetik 2018ra, eta 2018. urtetik 2019ra. Interpretatu ezazu zure erantzuna.**

- 2017-2018: %13,33
- 2018-2019: %7,35

Ekonomia hazkundera egon da ekoizpena hasi delako.

❖ **Zein hazkunde-tasa (BPG nominala Vs. BPG erreala) egokiagoa da ekonomia honen ekoizpenaren bilakaera aztertzeko?**

Erreala da egokiena. Izan ere, ez da prezioaren igoera kontuan hartzen.

❖ *BPGren deflaktorea*

Herrialde bateko ekoizpen maila orokorraren adierazle bat (BPG) dugun bezala, prezioen maila orokorra (prezio agregatuen maila) neurtzen duen adierazlea ere izango dugu: BPGren deflaktorea

Nola kalkulatu da?

BPGren deflaktorea urte jakin bateko prezio agregatuen maila neurtzen du urte horretako BPG nominala eta BPG erreala zatituz eta 100 biderkatuz:

$$\text{BPGren deflaktorea } j = \left(\frac{\text{BPG nominala } j}{\text{BPG erreala } j} \right) \cdot 100$$

Inflazioak BPGn duen eragina kentzeko, deflaktazio deritzon metodoa erabiltzen da.

Horrela, BPG nominala (edo eguneko prezioetan adierazitakoa) balio errealeara (edo prezio konstanteetara) pasatzeari deflaktatzen deritzogu:

$$\text{BPG erreala } j = \left(\frac{\text{BPG nominala } j}{\text{BPGren } j \text{ deflaktorea}} \right) \cdot 100$$

4.5. ARIKETA

Ekonomia berdinerako:

Urtea	Ondasuna 1		Ondasuna 2		Ondasuna 3	
	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €
2017	2.000	0,25	1.000	0,50	500	1
2018	2.200	0,30	1.200	0,60	550	2
2019	2.300	0,35	1.300	0,80	600	3

a) **Kalkulatu urte bakoitzeko prezio agregatuen maila eta interpreta ezazu zure erantzuna.**

- 2017ko BPGren deflaktorea: 100
- 2018ko BPGren deflaktorea: 145'88
- 2019ko BPGren deflaktorea: 199'72

Urteak pasa ahala urte honetako prezio agregatuek gora egin dute eta 2019an izan ditugu prezio altuenak.

b) **Zenbat hazi dira herrialde honetako prezioak 2017tik 2018ra? Eta 2018tik 2019ra? Interpretatu ezazu zure erantzuna.**

- 2017-2018: %45'88 igo da herrialde horretako prezio agregatuak.
- 2018-2019: %36'90 igo da herrialde horretako prezio agregatuak.

❖ *BPG per kapita*

BPG nominala edo erreala herrialde bateko ekoizpen agregatuaren adierazlea da. Beraz, gainontzeko aldagaiak berdinak badira, biztanleria gehiago duen herrialdeak BPG altuago bat izango du bakarrik biztanle gehiago dituelako.

Beraz, herrialdeen arteko BPG konparatu nahi badugu biztanleria kopuruaren eragina kendu behar dugu: BPG per kapita

Nola kalkulatu da?

BPGa (nominala edo erreala) biztanleriaren kopuruaz zatituz:

$$\text{BPG per kapita } j = \frac{\text{BPG } j}{\text{Biztanleria } j}$$

Horrela, BPG erreala per kapitak bai prezioen eta bai biztanleriaren eragina kentzen du.

Baina ez du neurtzen nola banatzen den ekoizpen ("aberastasun") hori biztanleen artean.

4.6. ARIKETA

Ekonomia berdinerako:

Urtea	Ondasuna 1		Ondasuna 2		Ondasuna 3	
	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €	Kantitatea (q)	Prezioa (P) €
2017	2.000	0,25	1.000	0,50	500	1
2018	2.200	0,30	1.200	0,60	550	2
2019	2.300	0,35	1.300	0,80	600	3

a) Kalkulatu urte bakoitzeko BPG erreala per kapita 2017. urteko prezioak erreferentziatzat hartuta. Interpretatu ezazu zure erantzuna.

- 2017: 0'0214-koa izango da buru bakoitzeko ekoizpena
- 2018: 0'0239-koa izango da buru bakoitzeko ekoizpena
- 2019: 0'0254-koa izango da buru bakoitzeko ekoizpena



b) Zenbat hazi da herrialde honetako pertsona bakoitzeko ekoizpen erreala 2017tik 2018ra? Eta 2018tik 2019ra? Interpretatu ezazu zure erantzuna.

- 2017-2018: 11'68 hazi da herrialde honetako pertsona bakoitzeko ekoizpena.
- 2018-2019: 6'28 hazi da herrialde honetako pertsona bakoitzeko ekoizpena.

- BPGren mugak

BPGk ez ditu kontuan hartzen ekonomia batek ekoiztutako azken ondasun eta zerbitzu guztiak. Jarduera asko ez dira aitortzen ("ezkutuko ekonomia").

BPGk ez ditu neurtzen ondasun eta zerbitzuen truke dirurik ez dagoen jarduerak (adib.: etxeko lanak, borondatezko lanak, truke-eragiketak).

BPGk ez ditu kanpo-eraginak adierazten (ondurak edota kostuak).


BPGk ez du neurtzen ekoiztutako ondasun eta zerbitzuen kalitatea.

BPGk ez du neurtzen nola banatzen den aberastasuna biztanleen artean.

- BPG neurtzeko metodoak

- *Gastuaren metodoa*

Herrialdeko ekonomia-eragile guztiek (enpresek, familiek eta sektore publikoak), haien naziotasuna edozein dela ere, herrialdearen barruan egindako azken ondasun eta zerbitzuen erosketak guztien merkatu-prezioko balioa.



- *Balio erantsiaren metodoa*

Ekoizle bakoitzaren azken ondasunen eta zerbitzuen balio erantsiak gehituz kalkulatzen da.

Oharra: Tarteko ondasunak ez dira kontuan hartzen zenbatze-arazorik ez izateko.

$$BPGd_{fk} = BE_a + BE_b + BE_c + \dots + BE_z$$

BE = Balio erantsia
a, b, c, d... z = ekonomia bateko enpresak

BE = sarrerak (salmentaren balioa) - kostuak (input-en balioa)

fk: faktore kostuen araberakoa

- *Diru-sarreraren eta errentaren metodoa*

Ekoizpen-faktoreak ekoizpen-prozesuan erabiltzerakoan sortzen diren diru-sarrera edo errenta guztien gehiketa da. Ekoizpen-faktoreen kostua bezala ere interpretatu ahal da:

$$BPGd_{fk} = \text{Soldatak} + \text{Alokairuak} + \text{Interesak} + \text{Enpresa-etekinak} + \text{Diru-laguntza ofizialak}$$

fk = Ekoizpen-faktoreen kostua

4.1. ARIKETA

Demagun ekonomia bat 3 enpresekin (1, 2 eta 3). Kalkula ezazu BPG hiru metodoen bitartez eta interpreta ezazu erantzuna. Eraitza berdina lortzen al da?

	Enpresa 1	Enpresa 2	Enpresa 3
• Azken ondasun eta zerbitzuen salmenten balioa	4200	9000	21500
• Tarteko ondasun eta zerbitzuen balioa	1000	950	2100
• Input-en kostua	0	4200	9000
• Soldatak	2000	3700	10000
• Interesak	1000	600	1000
• Alokairuak	200	300	500
• Etekinak	1000	100	700
• Diru-laguntza ofizialak	0	100	300
	Gastua 1	Gastua 20	Gastua 3
• Kontsumo pribatua	2100	2600	2800
• Enpresa-inbertsioak	680	800	1200
• Estatuaren gastua	400	650	1000
• Autonomia Erkidegoen gastua	100	50	500
• Esportazioak	1000	1700	7800
• Inportazioak	80	1000	800

- ❖ BPG Gastuaren metodoa → 21.500
- ❖ BPG Balio erantsia → 21.500
- ❖ BPG errentaren metodoa → 21.500

Herrialde honetan ekoizten diren azken ondasun eta zerbitzuen diru-balioa 3 metodoak erabilita 21.500€-koa da.

- **Ekonomia-politikak**


Politika ekonomikoak Estatuak ekonomian esku hartzeko (zuzenki edo zeharka) baliatzen dituen bitartekoen eta tresnen multzoa da, ekonomia-helburu batzuk lortzeko.

Politika mota (epe laburrean)	Nor	Tresna/k	Helburua/k
• Zerga-politika	Estatua (Autonomi Erkidegoa)	Zergak, gastu publikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia-hazkunde jasagarria • Enplegu betea • Prezioen egonkortasuna • Beste batzuk (kanpoarekiko oreka, aurrekontu oreka, errentaren banaketa berdina)
• Diru-politika	Europako Banku Zentrala	Zirkulazioan dagoen diru-kantitatea, interes-tasak	
• Kanpo-politika	Europar Batasuna	Truke-tasak, inportazioak, esportazioak	
• Errenta-politika	Estatua	Prezioak, soldadak	

Eskari agregatua edo BPG erreala: $C + I + GP + (X-M)$

- Hedapenak Vs. Atzeraldiak

Hazkunde ekonomikoaz hitz egiten denean, epe laburreko hazkundera eta epe luzeko hazkundera bereiztea komeni da:



- Zerga-politika

- **Zerga-politika:** Estatuak herrialdeko ekonomia-jarduera areagotzeko edo murrizteko abian jarritako jarduketaren multzoa da. Horretarako, zerga-bilketa eta gastu publikoaren aplikazioa baliatzen ditu, nagusiki.

Herrialdeek duten tresna ekonomiko nagusia da.

Politika ekonomikoa	Tresnak	Eraginak ekonomian
• Zerga-politika	<ul style="list-style-type: none"> • Gastu publikoa • Zergak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia-hazkundera • Prezioen egonkortasuna • Enplegua


Eskari agregatua edo BPG erreala: $C + I + GP + (X-M)$

- Tresnak

❖ *Gastu publikoa*


Gobernuak egindako gastu guztien gehiketa da: gastu arruntak + inbertsio-gastuak + transferentzia eta diru-laguntzak.

- Obra publikoen programak
- Enplegu eta prestakuntza-planak
- Transferentzia-programak (langabezia-prestazioak, erretiro-pentsioak ...)
- Inbertsioak
- ...

GP ↑ → eskari agregatua/BPG ↑ (eta alderantziz) 

❖ *Zergak*

Administrazio publikoek behartuta egin beharreko ordainketak dira, zergapekoek ordainetan ezer jasotzen ez dutela: zuzeneko zergak + zeharkako zergak.

- Zuzeneko zergak (PFGZ, Sozietateen errenten gaineko zerga...) 
- Zeharkako zergak (BEZ, zerga bereziak...)

Zergak ↓ → errenta eskuragarria ↑ → eskari agregatua/BPG ↑ (eta alderantziz)

- **Eraginak ekonomian**



Hedatzailea	Gastu Publikoa ↑ Zergak ↓	Errenta eskuragarria ↑	Kontsumoa ↑ Inbertsioa ↑ Gastu Publikoa ↑	Eskari agregatua ↑	Ekoizpena ↑ Enplegua ↑ Prezioak ↑
Murriztailea	Gastu Publikoa ↓ Zergak ↑	Errenta eskuragarria ↓	Kontsumoa ↓ Inbertsioa ↓ Gastu Publikoa ↓	Eskari agregatua ↓	Ekoizpena ↓ Enplegua ↓ Prezioak ↓

Politikak egokiak baldin badira, ez dute zertan eraginik izan prezioetan, baina hori ez da ohikoena izaten.

Zerga-politika hedatzaileak inflazioa eragin ohi du, eta murriztaileak, prezioak bere horretan geratzea.

4.7. ARIKETA

Zerga-politikaren zer tresna fiskalari dagozkio Estatuak hartutako neurri hauek, zein motatako zerga-politika mota da eta zer ondorio dute ekonomian (efektu kateatua zehaztuz BPGean duen eraginararte)?

a) **Ospitale bat eraikitzea.**

Gastu publikoa → GP gora → BPG gora → Zerga politika hedatzailea. Ekoizpenak gora egingo luke, langabezia jaitsiko litzateke eta prezioak igoko lirateke.

b) **PFEZren zerga-tasa igotzea.**

Zerga aldaketa (igoera) → Kontsumoa bera → BPG behera → Zerga politika murriztailea. Ekoizpenak behera egingo luke, langabeziak gora egingo luke eta, prezioek behera egingo lukete.



c) Langile aktiboentzako prestakuntza-ikastaroak.

Gastu publikoa → GP gora → BPG gora → Zerga politika hedatzailea. Ekoizpenak gora egingo luke, langabezia jaitsiko litzateke eta prezioek gora egingo lukete.

d) Langabezia-prestazioa ordaintzea.



Gastu publikoa → GP gora → BPG gora → Zerga politika hedatzailea. Langabeziak behera egingo luke eta prezioek gora egingo lukete.

e) Sozietateen errenten gaineko zergen murrizketa.



Zerga aldaketa → Inbertsioa gora → BPG gora → Zerga politika hedatzailea. Ekoizpenak gora egingo luke, langabezia jaitsiko litzateke eta prezioak igoko lirateke.

4.8. ARIKETA

Gobernuak gastu publikoa murriztea edo zergak igotzea erabakitzen duenean

- **Zer efektu kateatu sortzen dira ekonomian?**

Zeharkako efektua.

- **Nahi ez den zer ondorio izan dezake jarduketa horrek?**

Langabeziaren hazkundera.


- **Nola deritza zerga-politika mota horri?**

Zerga-politika murriztailea.

- **Diru-politika**

Europar Batasunean (zehatzago esanda, Eurogunean) diru-politika Europako Banku Zentralak (EBZ) ezartzen du, eta haren helburu nagusia prezioak egonkor mantentzea da; hartara, ziklo ekonomikoen eragozpenak saihesteko edo, gutxienez, moteltzeko. Horretarako, zirkulazioan dagoen diru kantitatea

areagotzen edo murrizten dute, eta interes-tasak aldatzen dituzte.

 Diru kantitatea (edo, gauza bera dena, diru-eskaintza) kontrolatuz, EBZak eragina izan dezake interes-tasetan, inbertsioan, produkzioan, prezio-mailan, truke-tasan (eta, ondorioz, esportazio eta inportazioetan), akzioen prezioetan eta etxebizitzaren prezioan.

Politika ekonomikoa	Tresnak aplikatzen dira	Eraginak ekonomian
<ul style="list-style-type: none">Diru-politika	<ul style="list-style-type: none">Zirkulazioan dagoen diru kantitateaInteres-tasak	<ul style="list-style-type: none">Ekonomia-hazkunderaInflazioa kontrolatzeaEnplegu betea

- **EBZren eginkizun nagusiak**


- Europar Batasuneko diru-politika erabakitzea eta gauzatzea
- Dibisa-trukeen eragiketak egitea
- Ordainketa-sistemen funtzionamendu egokia sustatzea
- Kreditu-erakundeak gainbegiratzea
- Finantza-sistemaren egonkortasuna bermatzea

- Diru-politika: Tresnak

Tresnak	Eraginak ekonomian
1. Zirkulazioan dagoen diru kantitatea 2. Interes-tasak	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia-hazkundera • Inflazioa kontrolatzea • Enplegu betea

Eskari agregatua edo BPG erreala: $C + I + GP + (X-M)$

- Zirkulazioan dagoen diru-kantitatea

Sisteman dagoen likidezia da: 

Likidezia ↑, Bankuek familia eta enpresei gehiago mailegatu ahal izango diote, eta ondorioz kontsumoa eta inbertsioa haziko dira → eskari agregatua/BPG ↑ (eta alderantziz)

- Interes-tasak

Diruaren “prezioa” adierazten du, epealdi baterako dirua maileguz hartzea zenbat kostatzen zaigun, alegia.

Interes-tasa baxua denean (hots, dirua “merkea” denean), inbertsioa handia izaten da inbertsio errentagarri izango baita eta kontsumoa ere (mailegu gehiago eskatu ahalko dira) → eskari agregatua/BPG ↑ (eta alderantziz)

- Diru-politika: Azpi-tresnak

Tresnak	Azpi-tresnak	Eraginak ekonomian
1. Zirkulazioan dagoen diru kantitatea 2. Interes-tasak	1. Erreserba minimoen mekanismoa 2. Merkatu irekiko eragiketak 3. Erraztasun iraunkorrak	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia-hazkundera • Inflazioa kontrolatzea • Enplegu betea


1. Erreserba minimoen mekanismoa:

Legezko kutxa-koefizientea EBZren aginduz banku-sistemako erakundeek ez-aktibo eusten dioten legezko diruaren ehunekoa da (ezin izango dutena erabili mailegatzeko), dela bezeroek dirua atera nahi dutenerako baliabideak izan ditzaten, dela interes orokorreko arrazoiengatik.

Horrela, EBZak zirkulazioan dagoen diru-kantitatea kontrolatu ahal du:


- Kutxa-koefizientea ↓ → bankuetan diru gutxiago “gordeko” da eta gehiago mailegatu ahal izango da, eta beraz zirkulazioan dagoen diru-kantitatea ↑, mailegu

gehiago eman ahalko baitira → inetres-tasen beherakada → enpresen I ↑; familien C↑ → BPG↑ (eta alderantziz kutxa-koefizientea ↑ bada)


2. **Merkatu irekiko eragiketak:** 

EBZak finantza-aktiboak (zor publikoaren baloreak, errenta finkoko baloreak, dibisak...) merkatu irekian saldu → sistemari likidezia kendu (diru gutxiago) + interes-tasen gorakada → C↓; I ↓ → BPG↓

EBZak beste bankuetatik nahiz partikularrengandik aktiboak erosi eta haien truke dirua eman → sisteman likideziaren gorakada (diru gehiago) + interes-tasen beherakada →... (alderantziz).

3. **Erraztasun iraunkorrak** 

Merkataritza-bankuek beren herrialdeko banku zentraletik jasotzen dituzten likideziaerraztasunak dira. Nola? Egun baterako:

Kredituak emanez (dirua injektatzea) → interes-tasak ↓ → C↑; I ↑ → BPG↑ 

Gordailuak xurgatzen (dirua ateratzea) → (alderantziz).

Erabateko autonomia dute Europar Batasuneko banku zentralek.

- **Diru-politika: Eraginak ekonomian**

Hedatzailea	Zirkulazioan dagoen diru-kantitatea ↑ Interes-tasak ↓	Errenta eskuragarria ↑	Kontsumoa Inbertsioa ↑	Eskari agregatua ↑	Ekoizpena Enplegua Prezioak ↑
Murriztailea	Zirkulazioan dagoen diru-kantitatea ↓ Interes-tasak ↑	Errenta eskuragarria ↓	Kontsumoa Inbertsioa ↓	Eskari agregatua ↓	Ekoizpena Enplegua Prezioak ↓

Politikak egokiak baldin badira, ez dute zertan eraginik izan prezioetan, baina hori ez da ohikoena izaten.

Diru-politika hedatzaileak inflazioa ekarri ohi du, eta murriztaileak, berriz, prezioen geldialdia.

4.9. ARIKETA

Diru-politikaren zer tresnari dagozkio EBZak hartutako neurri hauek, zein motatako diru-politika mota da eta zer ondorio dute ekonomian (efektu kateatua zehaztuz BPGean duen eraginera arte)?

a) Legezko kutxa-koefizientea handitzea

Bankuetan diru gehiago gordeko da, likideziak behera egingo du, gutxiago mailegatuko da, kontsumoak behera egingo du, inbertsioak behera egingo du, enpleguak behera egingo du, eskeriak eta prezioek ere eta BPGak beherakada jasango du. → Diru politika murriztailea

b) EBZak merkatu irekian aktiboak erosi

Likideziak gora egingo du, maileguak gora, inbertsio eta kontsumo gehiago, BPGa haziko da, langabezia jaitsiko da, eskaintzak eta prezioek gora egingo dute. → Diru politika hedatzailea

c) Herrialdeeko banku zentralak bankuei gordailuak xurgatu

Likidezia gutxiago, mailegu gutxiago, kontsumo gutxiago, inbertsio gutxiago . → Diru-Politika murriztailea

4.10. ARIKETA (ESKATU)

Erantzun hurrengo galderari:

- 1. Nola injektatu ahal du likidezia EBZak Europako ekonomian? Azaldu itzazu.**
- 2. Demagun ekonomia jakin batek ekonomia-hazkundera geldotzeko helburua duela. Deskribatu haren moneta-politikaren eraginak. Zein ondorio izan al ditu?**
- 3. Aztertu Europako Banku Zentralari buruzko hurrengo albisteak eta identifikatu aplikatzen duen tresna eta zer-nolako eragina izan dezakeen Espainiako ekonomian.**

- Helburuen arteko gatazka

Makroekonomian sarritan gertatzen den arazoa da helburu baten baino gehiagoren arteko gatazka edo bateraezintasuna. Horrek esan nahi du ez dagoela helburu guztiak aldi berean lortzerik: helburu batzuek lortzeko, beste helburu batzuetatik urrutiratu ohi gara ezinbestean. Hori horrela izanik, edozein gobernu ezer baino lehen helburu makroekonomikoak lehentasun-irizpide batzuen arabera ordenatu behar ditu, eta, jarraian, bere politika eta neurriak irizpide horren arabera egokitu eta abiarazi.

Gatazka edo dilemarik ezagunena eta konpontzeko zailena langabeziaren eta inflazioaren artekoa da. Produkzioa erritmo azkarrean hazten bada, langabezia murriztu egingo da, baina inflazioa handitu. Eta gobernu batek hazkunde ekonomikoa moteltzen edo murrizten badu inflazioa beharatzeko asmoz, langabeziak gora joko du.

Beste dilema bat epe laburreko eta epe luzeko hazkunde ekonomikoen artean bata lehenetsi (hautatu) behar denean gertatzen da. Epe luzeko hazkunde ekonomikoa lortzeko, gaurko egunean (orainean) gehiago aurreztu behar izaten da, inbertsio-proiektu gehiago finantzatzeko eta, hartara, etorkizuneko kapital stock-a

handitzeko. Baina orainean gehiago aurreztuz gero, gutxiago kontsumitzen da, gutxiago ekoizten da eta, ondorioz, epe laburreko hazkundea moteltzen da.

- Taula makroekonomikoak interpretatu

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA 2017-2019
Urte arteko aldakuntza tasak



	2017	2018	2018				2019	
			I	II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	2,5	1,9	2,3	2,0	1,7	1,4	1,3	1,0
- Familien gastua	3,0	1,8	2,5	2,1	1,6	1,2	1,1	0,6
- Administrazioaren gastua	1,0	1,9	1,6	1,7	1,9	2,2	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,3	4,5	7,9	5,3	3,5	4,8	1,0
Nazio eskaria (*)	3,0	2,6	2,8	3,1	2,5	2,0	1,9	1,0
Esportazioak	5,6	2,2	4,0	3,1	1,6	0,1	0,3	2,2
Inportazioak	6,6	3,3	4,7	6,3	2,5	-0,3	-0,4	0,7
BPG (m.p.)	2,9	2,4	2,8	2,3	2,2	2,1	2,2	2,0
Nekazaritza eta arrantza	-3,0	5,9	5,9	7,8	3,0	6,9	0,0	-4,6
Industria	3,1	-0,4	0,4	-0,3	-0,2	-1,5	-0,7	0,2
Eraikuntza	4,9	5,7	5,0	5,5	6,2	5,9	6,4	5,2
Zerbitzuak	2,9	2,7	3,0	2,5	2,6	2,7	2,9	2,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,8	1,2	2,4	1,5	0,8	0,0	-0,5	-0,4

- Adierazleak?
- Hazkundea?
- Gehien eransten duen aldagia?
- Zerga-politika?
- Diru-politika?

Oinarri urtea: 2015. (*) BPGaren hazkunderari eginiko ekarpena.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

4.11. ARIKETA

Hurrengo taula makroekonomikoak Espainiaren BPG erreala eta nominalaren urte arteko aldakuntza tasak 2019.urtetik 2021. urtera erakusten du. Azter itzazu taula eta erantzun hurrengo galderari:

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA 2019-2021
Urte arteko aldakuntza tasak

	2019	2020	2021
PIB real	2,0	-11,2	7,2
Consumo privado	0,9	-12,6	8,3
Consumo público	2,3	6,3	0,5
Inversión (FBCF)	2,7	-18,3	7,2
Exportaciones	2,3	-22,7	11,7
Importaciones	0,7	-20	8,6
PIB nominal	3,4	-11,2	8,1

Iturria: INE

a) 2019 eta 2020 urte bitartean Espainiako ekonomia hazi egin da? Zergatik? Zein adierazleari erreparatu behar diogu? Azaldu ezazu.

Barne produktu errealarari erreparatuz antzeman daiteke krisialdi egoera batean gaudela 2020.

b) Esan dezakegu zein izan den 2019-2021 urteetan BPG errealean gehien erantsi duen aldagaia Espainian? Zergatik? Azaldu ezazu.

Ez. Izan ere, BPG errealak aldakuntza neurtzen du bakarrik.

- c) **Espainiako ekonomiaren bilakaera 2019 eta 2020 urte bitartean kontutan hartuta, zein zerga-politika mota aplikatuko zenukete? Zergatik? Eta zein diru-politika mota? Zergatik? Justifika itzazu zure erantzunak.**

2020- urteko egoera kontutan hartuta zerga-politika hedatzailea aplikatuko genuke, atzeraldi fasea delako abiapuntua.

4.12. ARIKETA

Adierazi adierazpen hauek zuzenak edo okerrak diren, eta arrazoitu zure erantzuna:

- a) **Europako banku guztiek dute dirua sortzeko ahalmena**

Okerra. Banku zentralak

- b) **Interes-tasen aldaketa beti sortzen du inflazioa**

Okerra. Interes-tasek behera egiterakoan sortuko da inflazioa.

- c) **Zirkulazioan dagoen diru-kantitatea areagotuz gero, ziur asko inflazioa murriztuko da**

Okerra. Inflazioa sortuko da.

- d) **Zerga-politika hedatzailea zergen igoeraren ondorioa da**

Okerra. Zerga-politika hedatzailea zergen jaitsieraren ondorioa da.

- e) **Diru-politika murriztailea interes-tasen igoeraren ondorioa da**

Zuzena.

- f) **Gobernuen ekonomia-helburuetako bat ahalik eta prezio baxuenak izatea da**

Okerra. Helburua prezioen egonkortasuna da, eroste ahalmena mantentzeko.

- g) **Langabeziagatiko prestazioak zerga-politikaren tresna da**

Zuzena. Langabeziagatiko prestazioak, transferentziak dira, gastu publikoaren barruan sartzen dira eta beraz, zerga-politikaren tresna da.

- h) **EBZak merkatu irekiko eragiketen bidez kreditu-erakundeei kutxa-koefiziente jakin bat gordetzeko agintzen die**

Okerra.

- **Epe laburreko eredu makroekonomikoa**

Ekonomiaren epe laburreko gorabeherak azaltzeko eredurik oinarritzko eta egokiena da eskari agregatu eta eskaintza agregatuarena. Eredu honi esker, posible da ulertzea politika ekonomikoaren tresnek eta beste aldagai "arrotz" batzuek (hots, agintari ekonomikoen kontrolpetik at dauden aldagaiek) nola zehazten dituzten ekonomiako prezio-maila eta produkzio-maila (eta, hedaduraz, baita enplegu-maila eta interes-tasa erreala ere).



- Eredu makroekonomikoan

Orain ekonomia bere osotasunean aztertuko dugu.


- Ardatz horizontalean (X) ez dugu ondasun baten kopurua ipiniko. Ipiniko duguna zera da: ekonomia batean zenbat ekoizten den edo zenbat eskatzen den (ondasun eta zerbitzu guztiak kontuan hartuta): BPG erreala
- Eta ardatz bertikalean (Y) ez dugu ondasun baten prezioa ipiniko, ondasun eta zerbitzu guztien prezioak ordezkatzeko dituen indizea baizik.

- Eskari agregatua

Denbora-tarte jakin batean ekonomiako eragile edo sektore guztiek gastatu (edo eskatu) nahi duten azken ondasun eta zerbitzu kantitate osoa.

Eskari agregatua honako gastu (edo eskari) hauen batura da: $C + I + GP + (X-M) = Y$ (BPG erreala)


Eskari agregatua prezio agregatu-mailaren araberkoa da (mugimendua):



- Eskaintza agregatua

Denbora-tarte jakin batean ekonomiako enpresa guztiak ekoizteko eta saltzeko prest dauden azken ondasun eta zerbitzuen kantitate osoa (BPG erreala)

Eskaintza agregatua prezioen menpekoa da (mugimendua).






- Epe laburreko oreka makroekonomikoa

Oreka makroekonomikoa (orekako BPG erreala eta prezio agregatuena, alegia: Y^* eta P^*) zehatz-mehatz kokatzen da EA eta SA kurbek elkar ebakitzen duten puntuan (O puntuan, hain zuzen ere).

Zehazki, kurba horiei esker aurreikusiko dugu zein eragin izango duten Y_n eta P_n politika makroekonomikoek, teknologien aldaketek, produkzio-kostuen igoerek, eta abarrek..



4.13. ARIKETA HORRI BATEAN EGINDA

Hurrengo kasuentzako honako hau zehaztu behar duzu: (i) eskari edo/eta eskaintza agregatuaren lekualdaketa izan bada; (ii) lekualdaketa norabidea (eskuina edo ezkerre); (iii) lekualdaketa zergatia (faktorea); (iv) zer gertatzen da epe laburreko orekako prezio agregatu eta kantitate agregatuarekin eta (v) dagokion irudikapen grafikoa (nomenklatura guztiarekin).

- a) Gobernuak LGS igo egin du, herrialdeko langile askoren soldataren igoera ekarri du.
- b) Gobernuak zerga-politika murriztailea aurrera eramaten du zergak igoz.
- c) Petrolioaren prezioaren gorakadak herrialdeko ekoizleek gutxiago ekoiztea ekarri zuen.
- d) EBZak interes-tasak murriztu egin ditu diru-politika hedatzailea aurrera eramateko helburuarekin.
- e) Herrialdeko enpresek makina berriak sartzen dituzte euren ekoizpen prozesuetan.

X → Esportazioak

M → Inportazioak

J → Urtea

i → Ondasuna

n → ondasun kantitatea

Erref j → Erreferentzia urtea

t / hirukia → Aldakuntza-tasa/hazkunde-tasa

kapital finkoaren aldaketa/metaketa (edo horrelako zerbaite) gordina → Inbertsioak

BESTE INDIZE BATZUK

1. Giza Garapenaren Indizea

- 3 dimentsio ditu
 - Bizi-itxaropenaren tasa
 - Alfabetizazio eta eskolaratze-tasak
 - Bizi maila onargarria

2. Benetako aurrerapenaren adierazlea

Abiapuntua BPGa da, baina zuzenketa edo doikuntza batzuk egiten ditu. Adibidez, Etxeko eta borondatezko lanak gehitu eta kanpo-eraginak kendu.

3. Aztarna ekologikoa

Gaurko teknologia erabiliz gizarte batek kontsumitzen dituen baliabideak, hau da, ekoizteko zenbat baliabide erabiltzen dituen.

4. Planeta zoriontsuaren Indizea (Happy Planet Index → HPI)

Gizakien ongizatea zer efizientzia ekologikoz lortzen den neurtzen du.

$$\text{HPI} = \frac{\text{Bizitzaren asebetetze maila} \times \text{Bizi itxaropena} \times \text{Disparekotasunak}}{\text{Aztarna ekologikoa}}$$

DATA GARRANTZITSUAK

- 19... EQ
- 1986 merkatu bakarrak, heziak kenduta
- 1992 Europar batasuneko tratatua
- 1990 Instituto monetar europeo
- 1998ko ekainaren 1ean Europako Banko Zentrala
- 1998an "Euroa" sortu zen baina bankuek bakarrik erabiltzen zituzten
- 2002an "Euroa" erabiltzen hasi

5. GAIA: ENPLEGUA ETA LAN-MERKATUA

- SOLDATEN DESBERDINTASUNA HERRIALDEEN ARTEAN

Enpresa batek langile gehigarri bat kontratatuko du baldin eta langile berri horrek gehitzen duen produkzioa jasoko duen soldata baino altuagoa denean (eta alderantziz).

Baina.... Zertan datza herrialde bateko produktibitatea?

- Giza kapitala: langileen hezkuntza, prestakuntza, motibazioa, esperientzia...
- Kapital ondasunak eta garapen teknologikoa
- Enpresa antolakuntza eta kudeaketa

- SOLDATEN DESBERDINTASUNA LANGILEEN ARTEAN

Soldata bakarra egongo zen...

- Langile eta lanpostu guztiak homogeneousak

- Lehia-perfektuko lan-merkatua
- Mugikortasun eta migrazio perfektuak

Baina errealitatean... Lan-merkatua ez da lehia-perfektuko merkatua → soldata-maila desberdinak daude

- Zer dela eta?

❖ **Zenbait agentek soldatengan eragina izan ahal dute:**

- Patronala eta sindikatuek negoziazio kolektiboaren bitartez
- Gobernuak LGS ezarriz (735,90€ hilean, 14 ordainsari)

❖ **Lanpostu heterogeneoak:**

➤ Lanpostuen ezaugarriak:

- Lan batzuk arrisku gabekoak, erosoak eta lan baldintza atseginekoak dira, eta beste batzuk, ordea, kontrakoa (gaueko lanak, lanpostu desatsegin edota arriskutsuak, lanpostuaren kokapena, lanpostuaren “status”-a...)
- Beraz, enpresek soldata altuago bat ordiandu beharko dute lanpostu haueko langileei eragozpen hoiek konpoentsatzeko (konpentsazio ezberdintasunak)

➤ Exijitutako prestakuntza:

Hezkuntza eta prestakuntza altuago bat exijitzen duten lanpostuek, soldata altuago bat izango dute beste guztia finko mantenduz

➤ Soldata “eraginkorrak”:

Ordaintzen diren soldata altuagoak...

- Langileen errendimendua kontrolatzea zaila den sektoreetan
- Langileen akats kostuak oso altuak direnean
- Lan-txandaketa altu batek produktibitatea nabarmenki murrizten duenean

➤ Diskriminazioa:

Pareko pertsonen lan-baldintza (soldata barne) ezberdinak eskaintzen direnean, euren arraza, talde etniko, sexu edo beste ezaugarriengatik (aurreiritzietan oinarrituta)

❖ **Langile heterogeneoak:**

➤ Giza kapitalaren ezberdintasunak:

Hezkuntzak, prestakuntzak, norberaren trebakuntzak eta esperientziak, besteak beste, langileen produktibitatea igotzen laguntzen dute, eta ondorioz, soldata baita ere.

➤ Langileen lehentasunak:

Langileek lehentasun desberdinak izaten dituzte...

- Gaur egungo errenta Vs. Etorkizuneko errenta: etorkizuna orainaldia baino gehiago baloratzen duten pertsonak gaur egungo "kontsumoa" murriztera eta etorkizunean ordainsari altuagoak izatera prest egongo direnez, giza kapitalean gehiago inbertituko dute (eta alderantziz).
- Soldata ez den ezaugarriekiko gustuak: segurtasuna, egonkortasuna, lanpostuaren "status"-a, kokapena, oporrak, igotzeko aukerak...

❖ Lan-merkatuaren akatsak:

- Lan-merkatuari buruzko informazioa ez-perfektua eta garestia da.
- Gelditasunak:
 - *Geografikoak*: soldatarengatik lekualdatzeak kostu batzuk ditu (garraio kostuak, lanposturako eta leku berriarako egokitzapena, lagunak eta familia uztea...)
 - *Instituzionalak*: gobernuek edota sindikatuek ezarritako mugikortasun mugak (lanpostu jakin baterako euki behar diren lizentziak, autonomi erkidego batzuetan lanpostu jakin batzuetarako bete beharreko baldintzak...)
 - *Soziologikoak*: lan-merkatuan ematen den diskriminazioa arraza, sexua.... dela eta.

5.1. ARIKETA

Nork uste duzu soldata altuago bat izango duela? Zergatik?

1. Mediku batek edo banku bateko administrari laguntzaile batek.

Mediku batek

- Lanpostu heterogeneoa delako: Prestakuntza maila altuagoa

2. Abeslari arrakastatsuak edo eraikuntza-langileak.

Abeslari arrakastatsuak

- Giza kapitala: gaitasun berezia dauka

3. Supermerkatu berean kutzazain lan egiten duen andreak edo gizonak.

Gizonak

- Diskriminazio faktoreak direla eta

4. Meatzari batek edo zerbitzari batek.

Meatzari batek

- Lanpostu heterogeneoaren barruan ezaugarriak aztertuz meatzari batek arrisku handiagoa dauka.

- BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK
- Biztanleriaren sailkapena lan helmenaren arabera

❖ **Lanerako adina duen biztanleria (16 urte)**

➤ *Aktiboa*

Lurralde baten lanerako adinarekin (>16 urte) lan ordaindu bat egiten ari direnak nahiz lan egiten ez duten arren lanpostu bat topatzen saiatzen ari direnak biltzen ditu, bi egoera hauek erregistro ofizialetan kontutan hartuta daudelarik.

■ **Landuna**

Lan ordaindu bat egiten duen biztanleria aktiboaren parte: besteren kontura lan egiten duten langileek (soldatapekoak) eta norberaren kontura lan egiten dutenek (autonomoak) osatzen dute.

■ **Langabea**

Lan ordaindu bat egiten ez duen biztanleria aktiboaren parte: lanerako legezko adina izanik lan ordaindu bat ez dituzten baina lanpostu bat topatzen saiatzen ari diren pertsonak osatzen dute (lan egiteko prest daude eta eskuragarri daude).

➤ *Ez-aktiboa*

Lanerako adina duten arren, pertsona horiek ez dute lan egin nahi, ezin dute lan egin, eta ez dabilzate lan bila (ikasleak, etxeko andreak, erretiratuak, baliezintasunen bat duten pentsiodunak, lanerako ezgaituak).

5.2. ARIKETA

Sailkatu hurrengo pertsonak biztanleria aktiboan eta ez-aktiboan, eta aktiboaren kasuan, landunan edo langabean:

1. Lorea, 20 urteko kazetaritzako ikaslea unibertsitatean. Ez-aktiboa
2. Begoña, banku sukurtsal baten zuzendariordea. Aktiboa, landuna
3. Antonio, ikastola baten irakasle lan egin zuela, baina orain erretiratuta dago. Ez-aktiboa
4. Janire, ekonomilaria eta oposizioko ikaslea. Aktiboa, langabea
5. Josu, 3 urte lana topatzen saiatuz eta gero, guztiz desanimatuta dago eta ez dabilza lana topatzen dagoeneko. Ez-aktiboa
6. Raul, futbolaria, bajaran haustura bat dela eta. Aktiboa, landuna
7. Kepa, igeltseroa, lan bila dabil orain dela 4 hilabetetik. Aktiboa, langabea
8. Elena, zahar-egoitza baten boluntario dabil. Ez-aktiboa

9. María, Espainian lan egiten duen dokumentu gabeko etorkina. Ez da ezer estatistiken begietan, ez baitago erregistratuta

10. Jon Ander, autonomia den taxista. Aktiboa, landuna, autonomia

11. Itxaso, loteria sari handi bat irabazi eta gero lan ez egitea erabakitzen duen 40 urteko andrea. Ez-aktiboa


- LANGABEZIA

Enplegua edo lana ekonomia baten lan ordaindu bat egiten ari diren pertsona kopurua da, denbora osorako edo partzialki.

Langabezia gaur egun lan ordaindu bat egin ez arren lan bat topatzen saiatzen ari direnek osatzen dute.

Langabezia gizarte garatuen arazo larrietariko bat da.

Gobernu ororen lehentasunezko helburua izaten da langabeak babestea eta enplegua sortzea (kostu sozialak↓). Espainian, enplegu-politikaren bidez lortzen da hori (aurrerago ikusiko duguna).



- Langabeziaren neurketa: informazio-iturri nagusiak

❖ Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

- Hiru hilean behin INEk egindako inkesta
- 200.000 pertsona (>16 urte) ingururi elkarrizketatu
- Nazioartean onartutakoa (konparagarria)
- Adituek hau nahiago: fidagarriagoa
- Langabetuen kopurua kalkulatzeko kontutan hartzen du erregistroetan izena emanda ez dagoen biztanle kopurua ere
- Jasotzen dituen langabezia-tasak SEPEkoak baino altuagoak izaten dira

❖ SEPEn erregistratutako langabezia

- Hilean behin langabezia neurtzen duen erakundea da SEPE (INEM izan zena) edo autonomia erkidegoen menpeko enplegu-behatokiek (adib.: Lanbide)
- Langabetuen kopurua kalkulatzeko erakundean izena emanda dutenak soilik hartzen ditu kontuan (erregistratutako langabezia)

- Jasotzen dituen langabezia-tasak BAI-koak baino baxuagoak izaten dira
 - Errealitate bera neurtzeko bi era desberdin: BAI Vs. SEPE
- “... BAI-k lan bila dabilzan pertsona langabe guztiak bildu nahi ditu; aldiz, SEPE-k enplegu-bulego publikoan erregistratutako langabeak bakarrik batzen ditu ...”.
- Lan-merkatuaren egoeraren neurketa: adierazle nagusiak

❖ **Jarduera tasa**

Biztanleria aktiboaren eta lanerako adina duen biztanleriaren arteko erlazioa da eta herrialde bateko lanaren ardura duen biztanleriaren ehunekoak neurtzen du.

$$\text{Jarduera - tasa} = \frac{\text{Biztanleri a aktiboa}}{\text{Lanerako adina duen biztanleri a (> 16 urte)}} \cdot 100$$

❖ **Langabezia tasa**

Langabeen eta biztanleria aktibo osoaren arteko erlazioa da. Tasa honek biztanleria aktiboaren baitan langabezian zenbat pertsona dauden neurtzen du, ehunekoetan. Hau da, lan egin nahi duten 100 pertsonatik zenbatek ez dute lanik egiten.

$$\text{Langabezia - tasa} = \frac{\text{Biztanleria langabea}}{\text{Biztanleria aktiboa}} \cdot 100$$

❖ **Okupazio tasa**

Landunen eta biztanleria aktibo osoaren arteko erlazioa da. Biztanleria aktiboaren baitan okupazioa zenbatekoa den neurtzen du ehunekoetan. Hau da, lan egin nahi duten 100 pertsonatik zenbatek egiten duten lan adierazten du.

$$\text{Okupazio - tasa} = \frac{\text{Biztanleri a landuna}}{\text{Biztanleri a aktiboa}} \cdot 100$$

5.3. ARIKETA

Herrialde batek bere lan-merkatuari buruz hurrengo datuak aurkezten ditu informazio-iturria BAI:

- **Biztanleria aktiboa = 15.700.000 biztanle**
- **Lanerako adina duen biztanleria = 31.900.000 biztanle**
- **Biztanleria langabea = 1.800.000 biztanle**

a) **Kalkula ezazu biztanleria ez-aktiboa eta interpreta ezazu zure erantzuna.**

Lanerako adina duen biztanleria- biztanleria aktiboa

31.900.000-15.700.000= **16.200.000 biztanle** ez-aktibo egongo dira. Hau da, lan egiteko adina duten 16.200.000 biztanlek ez dute lanik egiten eta ez daude lanik bilatzen. Ez dutelako nahi (loteria irabazi dutelako...) edo ezin dutelako (epe luzerako gaixotasunak, ezgaituak)

b) Kalkula ezazu biztanleria landuna eta interpreta ezazu zure erantzuna.

Biztanleri aktiboa - biztanleri langabea

$15.700.000 - 1.800.000 = 13.900.000$ biztanlek lan ordaindu bat egiten dute norberaren kontura autonomo gisa edo besteren kontura soldatapeko gisa.

c) Kalkula ezazu jarduera-tasa eta interpreta ezazu zure erantzuna.

Lanerako adina duen biztanleriaren %49'21 biztanleria da, hau da, lan ordaindu bat egiten dute edo lan ordaindurik ez duten arren bilatzen ari dira.

d) Kalkula ezazu langabezia-tasa eta interpreta ezazu zure erantzuna.

Biztanleria aktiboaren %11'46 langabezia dago, hau da ez dago lanik egiten baina bilatzen dabilta, eskuragarri eta lanerako prest egoteko. Gainera BAIIn ez da beharrezkoa Lanbiden erregistratuta egotea.

e) Kalkula ezazu okupazio-tasa eta interpreta ezazu zure erantzuna.

Biztanleria aktiboaren %88'53 lan ordaindu bat egiten du norberaren kontura autonomo gisa edo besteren kontura soldatapeko gisa.

5.4. ARIKETA

Herrialde batek bere lan-merkatuari buruz hurrengo datuak aurkezten ditu (informazio-iturria: BAI eta LANBIDE):

- Lanerako adina duen biztanleria = 30.500.000
- Biztanleria landuna = 13.200.000
- Biztanleria langabea erregistratuta Lanbiden = 1.100.000
- Biztanleria langabea BAIIn oinarritutakoa = 1.600.000

a) Kalkulatu langabezia-tasa BAIren arabera eta interpreta ezazu zure erantzuna.

$$1.600.000 : (13.200.000 + 1.600.000) \times 100 = \%10'81$$

b) Kalkulatu langabezia-tasa LANBIDEn arabera eta interpreta ezazu zure erantzuna.

$$1.100.000 : (13.200.000 + 1.100.000) \times 100 = \%7'69$$

Biztanleria aktiboaren %7'69 langabezia dago, hau da ez du lanik egiten baina Lanbide erregistratu da.

c) Zein langabezia-tasa da altuagoa? Zergatik?

BAI ez delako beharrezkoa erregistratuta egon behar.

d) Kalkulatu biztanleria ez-aktiboa BAIren arabera eta interpreta ezazu zure erantzuna.

$$30.500.000 - 14.800.000 = 15.700.000$$

BAIren arabera 15.700.000 pertsona ez-aktibo dira, hau da, ez dute lan ordaindurik egiten edo bilatzen, ezin dutelako edo ez dutelako nahi.

e) Kalkulatu biztanleria ez-aktiboa LANBIDEn arabera eta interpreta ezazu zure erantzuna.

Lanbideren arabera 16.200.000 pertsona ez-aktibo dira, hau da, ez dute lan ordaindurik egiten edo bilatzen, ezin dutelako edo ez dutelako nahi.

f) Zein da altuagoa? Zergatik?

Lanbiderena altuagoa da, ez baitira erregistratu gabeko langabeak kontuan hartzen.

g) Zein dira BAI eta LANBIDE informazio iturrien arteko desberdintasun nagusienak? Azaldu itzazu.

- Langabeziaren kalkulua
 - BAI inkesta (telefonoz) bat da eta Lanbide erregistro bat da
 - BAI 3 hilero egiten da eta Lanbide hilero
 - BAI fidagarriagoa da
 - BAI konparagarria da beste herrialde batzuekin
- Langabezia motak

❖ **Frikzionala:**

- Langileen eta lanpostuen arteko egokitzapenak dakarren garaiaren eraginez sortzen da.
- Pertsonak bere borondatez langabezian egotea da; hots, lanean jarduteko gaitasuna izanik, astia hartu nahi dutenak, ikasteko, atsedean hartzeko, aurreko baino lan hobea lortzeko edo lehenengo aldiz lan baten bila dabiltzalako, adibidez.
- Borondatezko langabezia dela esaten da.
- Normaltzat eta ezinbestekotzat har daiteke, merkatu-ekonomiak ongi eta era dinamikoan funtzionatzen duen seinaleztat, alegia.

❖ **Urte-sasoikoa:**

- Urtaroaren araberako langabezia da.
- Klimaren edo urtaro jakin baten menpeko jardueretan jazotzen da langabezia mota hau.
- Urteko garai ezberdinetan lan faktorearen eskaria aldatu egin ohi da, eta horrek garaian garaiko (edo tokian tokiko) langabezia ekar lezake. Adibidez: Espainian langabezia-tasak nabarmen egiten du behera turismoaren goi-denboraldian.

❖ **Ziklikoa edo koiunturazkoa:**

- Ziklo ekonomikoari lotutako langabezia da.
- Nabarmen egiten du gora atzeraldietan, eta, hedaldietan, berriz, behera egiten du.

❖ **Egiturazkoa:**

- Enpresaburuek proposatzen duten lan-eskaintza eta langileek eskatzen duten lana guztiz bat ez etortzeak eragiten du.

- Langileak lanpostu hutsak betetzeko gaitasun tekniko egokia ez izatearen eta lanpostu jakin bat betetzeko eskatzaile gehiegi egotearen ondorioa da (sektore batzuk gora doaz eta beste batzuk behera).
- Eskualde batzuetan gertatzen da, edo zenbait jarduera-adarretan.
- Herrialde bateko egitura produktiboan edo teknologian ematen diren aldaketen ondorioa.
- Adib.:
 - Aldaketa teknologikoa gertatzean, zenbait ekoizpen-jarduera eta faktore zaharkituta geratzen dira, eta erritmo egokian ez badira birsortzen, lana galtzeko arriskua egongo da edo lanpostu berriak ez dira sortuko.
 - Meategi bat ixterakoan, meatzariak bere lana galtzen du eta ziurasko sektorez aldatu beharko da eta bere prestakuntza eguneratu.
- Kezka handien sortzen duen langabezi mota da, denboran iraun (epe luzekoa).

5.5. ARIKETA

Zer langabezia motatan sartuko zenituzke pertsona hauen egoerak?

- a) **Manu, uda oro suak itzaltzeko zerbitzuan egiten du lan** → Urte sasoiko langabezia
 - b) **Alberto, metaleko langilea, kalera bota dute, Asturiaseko meategietan eman den krisia dela eta (salmentek geldialdia izan dute** → Egiturazko langabezia
 - c) **Begoña, ekainean lana uzteko asmoa du, urrian Administrazio eta Finantzaketako goi-mailako zikloa ikasteko** → Langabezi frikzionala
 - d) **Karmele, langabezian dago, teknologia berriekin oso gaizki moldatzen delako** → Egiturazko langabezia
 - e) **Esti, 2008ko krisialdiarekin lan barik geratu zen** → Langabezia ziklikoa
 - f) **Xabier, orain dela hilabete batzuk unibertsitateko gradua amaitu zuen eta orain lan bila dabil** → Langabezi frikzionala
- Langabeziari buruzko teoriak

❖ Teoria Neoklasikoa

- Liberalismo ekonomikoaren aldekoak
- *Kausa?* Merkatuak ez du era aske baten funtzionatzen eta LGS orekako soldataren gainetik ezartzen da gehiegizko eskaintza ekartzen duelarik (hau da, langabezia)
- *Zergatik?* Soldatak ez dira malguak Gobernuak eta sindikatuak lan-merkatuan eskua hartzen dutelako
- *Konponbidea?* Lan-merkatuan askatasun osoa egotea soldatak malguak izateko (soldatak SL eta DLren arabera egokitzeko)

❖ Teoria Keynesiarra

- Estatuaren esku-hartzearen aldekoak
- *Kausa?* Ondasun eta zerbitzuen eskaria urria

- *Zergatik?* Eskarria urria denean, enpresek gutxiago ekoizten dute, eta beraz ez dute behar izango hainbeste langile
- *Konponbidea?* Estatuak ekonomian esku-hartu behar du eta lana sortzeko zorpetu egin behar da

❖ Teoria Marxista

- Plangintza zentralizatu baten aldekoak
- *Kausa?* Sistema kapitalista bera: ekoizpen-faktoreen jabeak (kapitalistak) Vs. Langileak (proletaltoa)
- *Zergatik?* Kapitalistek kontrolatzen dituzte soldatak euren helburu bakarra mozkinak handitzea delarik, lan esplotazioa
- *Konponbidea?* Plangintza-zentralizatu baten bidez antolatu ekonomia-jarduera errentaren banaketa berdina izatearen helburuarekin

❖ Beste teoria batzuk

- Lan-merkatuan desorekak S_L eta D_L artean \rightarrow lan-merkatuan ez da eskaintzen enpresek eskatzen duten langile profila (eta alderantziz)
- Enpleguaren banaketa okerra (enlegu-aniztasuna, aparteko orduak....)

- Langabeziaren ondorioak

- Diru sarreren beherakada.
- Lan-esplotazioa.
- Ezkutuko ekonomiaren hedapena (fraude fiskalak...).
- Kriminalitatea.
- Hezkuntza desmotibazioa.
- Eskariaren murrizketa.
- Estatuko aurrekontuen murrizketa.
- Gazteen emantzipazioaren atzerapena.
- Aitatasunaren atzerapena eta jaiotza tasa txikiagoa.
- Arazo pertsonalak / sozialak (segurtasun falta, erlazio sozialen jaitziera, lotsa eta hutsegitearen sentimendua...)
- Suizidioak
- ...

- LANGABEZIA MURRIZTEKO TRESNAK

- Lan-merkatuaren erreforma

Ekonomia-susperraldia eta enpleguaren sorrera bizkortzeko, lan-merkatuaren erreformak premiazko zenbait neurri gehitzen ditu kontratazioa sustatzeko eta enplegua sortzeko faktore instituzionalak eta normatiboak erreformatuz.

Espanian egin den azkenengo lan-merkatuaren erreforma: 2012ko uztailean indarrean sartu.

Ministro Kontseiluak 2012ko otsailaren 10ean egin zuen bileran onartu zuen Errege Dekretu Lege baten bidez (3/2012 Errege Lege Dekretua) eta aurreko 2010eko lan-merkatuko erreforma aldatu egin zuen.

Lan-merkatuaren erreformarako hartu ziren premiazko neurriak:

- Kontratazioa erraztea, batez ere, gazteei eta epe luzeko langabetuei dagokionez.
- Kontratu mugagabeak aldi baterako kontratuekiko suspertu
- Krisian dauden enpresentzako langileen kaleratzea azkenengo aukera izatea
- Lan-merkatuaren zorrotasunarekin amaitzea (hau da, lan-merkatua malgutu)
- Enplegu egonkorra sortzeko oinarriak ezarri

- Enplegu-politikak

Gobernu guztien helburuetako bat enplegua sortzea eta langabetuak babestea da, langabeziak sortutako kostu sozialak leuntzeko. Helburu hori lortzeko neurri desberdinak hartzen dira → enplegu-politikak

Espanian, enplegu-politikak urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuan erregulatzen dira.

1go artikuluan definizioa agertzen da: "... La política de empleo es el conjunto de decisiones adoptadas por el Estado y las comunidades autónomas que tienen por finalidad el desarrollo de programas y medidas tendentes a la consecución del pleno empleo, así como la calidad en el empleo, a la adecuación cuantitativa y cualitativa de la oferta y demanda de empleo, a la reducción y a la debida protección de las situaciones de desempleo...".

❖ **Enplegu-politiken sailkapena**

➤ *Politika aktiboa*

Orientazio, lanbide eta lanbide heziketarako zerbitzu eta programen bilduma da langabetuek lana topatzeko aukerak hobetzeko, landunek lanean mantentzeko, landunen igoerak sustatzeko eta ekintzailtza eta gizarte-ekonomia babesteko. (Behartsuari arrantzan egiten irakasten zaio)

- Deszentralizatua → Euskal administrazioek + Euskal Enplegu Zerbitzua, LANBIDE

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak laneratzea sustatzeko, enplegarritasun maila igotzeko eta enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea sustatzeko abian jarritako enplegu politika aktiboen programa estrategikoak dira Enplegu Planak.

- Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020
- Beraz, politika aktiboek hurrengo 6 ardatzak jarraitzen dute (2017-2020) plan eta programa desberdinetan gauzatzen direnak (begiratu ere LANBIDE)


ARDATZA	LORTU NAHI DIREN HELBURUAK
A) AKTIBAZIOA	Egungo jarduera-tasa baxua areagotzea eta enpresen eskaerari aurre egiteko biztanle aktibo nahikoa eta gure Ongizate Estatuari eusteko pertsona landun nahikoa ez izateko arriskua arintzea.
B) KUALIFIKAZIOA ETA GAITASUNAK	Ekoizpen-sarearen benetako beharretara egokitutako gaitasunak dituzten pertsonak lortzea, ezagutza teknikoak, zein gaitasun sozialak, hizkuntzak eta beste kontuan hartuz.
C) AUKERAK SORTZEA	Aukerak sortzea ekonomiaren garapenean oinarrituz, eta erabat aprobetxatzea gure ekonomiak enplegua sortzeko duen ahalmena.
D) AUKERA-BERDINTASUNA	Kolektibo eta talde guztiei aukera berak eskainiko dizkien lan-merkatu inklusibo bat lortzea.
E) KALITATEZKO ENPLEGUA	Kalitate handiagoa duen enplegua eskainiko duen lan-merkatu bat lortzea, adostasunean eta lankidetzan eraikitako lan-harreman batzuetan oinarrituz.
F) BALIOZKO ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUEN EUSKAL ENPLEGU SISTEMA ERAGINKOR ETA EFIZIENTEA	Gaur egungo Euskal Enplegu Zerbitzua hobetzea, enpleguan eragiten dituen politika guztiez osatua egon dadin eta pertsonen eta enpresen beharretara bideratutako zerbitzuak eskaini ditzan.

➤ *Politika pasiboa*

Langabeziagatik babes neurriak dira, hots, langabezian dagoenari lan bila dagoen bitartean bizi ahal izateko ematen diren diru-laguntzak biltzen ditu (langileak aurretik kotizatutakoaren ondorioa ala laguntza modukoa). (Behartsuari arraina ematen zaio)

- Espainiar Estatuaren esku, Servicio Público de Empleo Estatal, SEPE

Langabeziagatik prestazioak: kontribuzio eta asistentzia maila

Kontribuzio-mailako langabezi prestazioak	Asistentzia-mailako langabezi prestazioak
Lana egiterakoan jasotzen ziren errentak ordezkatzeko ematen den prestazio ekonomikoa	Langabetuaren benetako egoeraren arabera ematen den prestazio ekonomikoa
Eskatzaileak gutxieneko kotizazio bat egin behar izan du	Langabetuak errenten falta/eza erakutsi behar du
Eskuratutako eskubide bat da	Horretaz aparte, beste eskakizun multzo bat bete beharko du prestazio motaren arabera (Adib.: prestazioa jaso aurretik lanean zebilen ziurtagiria)
Iturria: SEPE Kontribuzio 	Iturria: SEPE Asistentzia